# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2001eko uztailaren 20a • II. urtea • 31. zenbakia • DOAN BANATZEKOA



**JAIAK: ANTZUOLAKO JAIEN ARGAZKI-KRONIKA /12**

Goienka2a

**'Putz' aldizkariko erredaktoreburuarekin hitz egin dugu**

**KIROLAK**

**Felix Iñurrategi-Baltistan Fundazioa abian jarri dute /11**

**ESTEBAN URIBESALGO**

*"Astore nagusi da Hego Euskal Herrian, multinazionalen aurretik"* **/9**

**ABUZTUAREN 17AN HASIKO DIRA OSPAKIZUNAK**

# Arantzazuk milurte erdia

Arantzazuko santutegiko frantziskotarrek ekitaldi ugari antolatu dituzte abuzturako eta datorren urterako; izan ere, urteurren oso berezia bete dute, bosgarren mendeurrena, hain zuzen ere. 1468ko ekainaren 11n, San Bernabe Egunean, artzain batek sasi artean Ama Birjinaren irudi bat aurkitu ei zuen, eta horregatik, santutegia eraikitzea erabaki zuten Arantzazu inguruko bizilagunek. Oñatiarrek Arantzazurainoko bidea eta ermita eraiki zuten erromesendako. Gero, 1501ean, Alejandro VI.a aita santuak baimena eman zien frantziskotarrei Arantzazun bizi ahal izateko. **/2-3**



JULIO CALLEJA

## Zinema egiten Elgetan

Elgeta zinema estudio bihurtu da egunotan. Han grabatzen ari dira Jon Andueza arrasatearraren hirugarren film laburra, *Aita guria* izenekoa. Martitzenean hasi eta eguenera bitartean ibili dira lanean. Ikusmina sorrarazi du herritarren artean. Izan ere, hainbat kaletan, udaletxean eta Asentzio inguruan ibili dira grabaketak egiten. Gainera, *Hasiberriak* telesaileko aktore ezagunek parte hartu dute: Martxelo Rubio, Oihana Maritorena, Mikel Antero... Horiekin batera, herriko hainbat ezagunek ere, Iban Arantzabal *Goienkaria*ko erredaktorea, esaterako **/16**

# Elgeta: EH gobernukide izatetik oposiziora, EAJk kanpoan utzi eta gero

Batzorde informatiboetan jarraitzeko aukera duten arren, Gobernu batzordetik kanpo geratu da EH. Azkeneko osoko bilkuran aurrekontuei ezetza eman zien EHk eta hori izan da arrazoietariko bat EAJk erabaki hori hartzeko.

Jeltzaleei ez zitzaizkien batere gustatu jaien aurkezpena egin zuen hizlariak diskurtsoan esandakoak; egun hartan esan zuen Gobernu batzordeko inposaketak zirela jasandako murrizketak. Horrek eragin du gobernuan beharrean oposizioan dauden sentsazioa piztea, eta ondorioz, Gobernutik botatzea, betiere EAJko ordezkarien esanetan. **/5**

ANGIOZAR

## Suak Eguzkitza Azpikoa kiskali du

Angiozarko Eguzkitza Azpikoa baserria erabat kiskali zuen suak eguen eguerdian. Ganbaran piztu zen sua 13:30ak aldera. Baserriko nagusi Felix Garai konturatu zen baserria erretzen zegoela, bazkalosteko lokuluska egitera zihoanean. Astia izan zuen familiartekoak eta animaliak kanpora ateratzeko, baina suhiltzaileek ezin izan zuten arratsaldera arte sua itzali.



Eguzkitza Azpikoa baserria erabat kiskalita geratu zen suagatik. ENEKO AZKARATE




HERRIZ HERRI/4-5 • GUTUNAK/6 • IRITZIA/7 • KIROLA/10-11 • JAIK/12 • KULTURA/14-17 • DENBORA-PASA/20 • ZERBITZUAK/21 • BERRI-ZAKUA/22

 GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko uztailaren 20a

# Arantzazuren milurte erdia

## Arantzazu aspalditik da sinboloa, baina gogorrago eutsi nahi dio geroari

IKER BARANDIARAN

Arantzazuko santutegiko frantziskotarrek ekitaldi ugari antolatu dituzte abuzturako eta datorren urterako; izan ere, urteurren oso berezia bete dute, bosgarren mendeurrena, hain zuzen ere. 1468ko ekainaren 11n, San Bernabe Egunean, artzain batek sasi artean Ama Birjinaren irudi bat aurkitu zuen, eta horregatik, santutegia eraikitzea erabaki zuten Arantzazu inguruko bizilagunek. Oñatiarrek Arantzazurainoko bidea eta ermita eraiki zuten erromesendako. Gero, 1501ean, Alejandro VI.a aita santuak baimena eman zien frantziskotarrei Arantzazun bizi ahal izateko. Horrela, Arantzazukoa frantziskotarrek Gipuzkoan izan duten lehenengo komentua izan zen. Data hura abiapuntu hartuta ospatuko dute bosgarren mendeurrena.

Arantzazuko frantziskotarren santutegian historian gertatu diren ezusteko handienak hiru erreketak dira: bata, 1555ean, bestea 1622an eta azkena 1834an. Azken hori, soldadu liberalek egin zuten, santutegia karlisten zokoa zela uste zuteneta. Erreketa haren ondorioz, fraideak sakabanatu eta hamar urte igaro arte ez ziren Arantzazura bueltatu. Joxe Agustin Elustondo frantziskotarrak ederto laburbildu duen moduan, "Arantzazuko historia eliza berriak eraikitzearen historia da. Eskerrak Euskal Herriak Arantzazu eusten eta berriro jasotzen lagundu duen". Izan ere, gaur egungo santutegiaren lehenengo harria 1950ean jarri zuten, eliza zaharra bota eta gero. Eta berria 1955ean inauguratu zuten.

Frantziskotarren kopurua kontuan hartzen badugu, gorabehera handiak izan dira. 1501eko 12 fraideetatik 1950eko 150etara pasa gaitezke, edo egungo 45 frantziskotarretara. Gaur egun, gazteenak 54 urte ditu, eta nagusienak, 90.

Frantziskotarren bizimodua jakinarazi eta mezak esateaz gainera, berbaldiak antolatu eta liburuak argitaratzen dituzte, eta euskarari mesede handia egin diote. Era berean, musikari bultzada handia eman eta zabalgune handia izan dute misioetan. Urte askoan eskolak eman dituzte, eta azken mendean, esaterako, seminarioan fraide zein apaiz askok ikasi dute. Eskolak emateari 1986an utzi zioten, baina egun Arantzazun bertan kulturagunea eraikitzeko asmotan dabiltza, Aizkorriko parke ekologikoari sarrera emango diona.

Teknologia berriak ere ez dituzte alde batera utzi gura. Santutegian 20 ordenagailu dituzte eta laster web orria gertu izango dute.



Oteizak eta irudiko lankideek egindako hamalau apostoluak sinbolo bilakatu dira.



1950eko eraberritzearen aurreko Arantzazuko irudi orokorra.



1968tik 1986ra eskolak eman zituzten seminarioan. Irudian, Bitoriano Gandiagarekin.




Bosgarren mendeurreneko ekitaldiak aurkezteko prentsaurrekoaren irudia.

**BERGARA** BABESTUTAKO 35 ETXEBIZITZA GEHIAGO

# Udalak 25.000 metro koadroko lursaila emango dio Jaurlaritzari

*Hantxe, babestutako 35 etxe eta ikastetxe bat eraikiko ditu Jaurlaritzak*

MONIKA BELASTEGI

Udalak hitzarmena sinatu berri du Eusko Jaurlaritzarekin. Hitzarmenean jasotzen denez, Udalak 24.160 metro koadroko lursaila emango dio Jaurlaritzari, Mayc enpresaren ondoan dagoen lursaila, hain zuzen. Eta Jaurlaritzak babes ofizialeko 35 etxebizitza eraikiko ditu lursail horretan. Baita ikastetxe bat ere, Miguel Altuna institutuko ikastetxe berria, hain justu ere. Horrela, Miguel Altuna Lanbide Heziketako ikastetxea, aipatutako lursailera joango litzateke.

**HANDITZEKO TOKIRIK GABE**
Gaur egun herri erdialdean dago Miguel Altuna, Ibargarai kalean, eta ez du handitzeko lekurik. Ondorioz, Goi Mailako Lanbide Heziketako Institutua den arren, ez du espezialitate berriak eskaintzeko aukerarik. Jaurlaritzak eraikiko duen ikastetxeak irtenbidea emango dio Miguel Altunaren handitze arazoei.

Mayc ondoko lursaila emateagatik, Eusko Jaurlaritzak, trukean, Miguel Altuna zaharreko parte bat emango dio Udalari. Victoriano Gallastegi alkatearen esanetan, etxebizitzak eraikiko dituzte, seguruenik.


Arrasate bidean, Mayc lantegiaren ondoan, dago lursaila. MONIKA BELASTEGI

**OÑATI** GAZTELEKUA ITXITA

# Eraikinak hainbat akats dituela-eta, gaztelekua itxita

*Informatika gela eta informazio bulegoa lehengo bake epaitegian jarri dituzte*

AINTZANE IRIZAR

Duela bi aste itxi zuten gaztelekua. Udako oporraldien ostean gaztelekua eraberritzen hastekoak dira. Lanekin hasi aurretik, erreka aldeko zimenduak berrindartu dituzte. Lan horiek egin dituen enpresak, zutabe guztien egoera aztertzea komeniko litzatekeela esan zien Udaleko arduradunei. Izan ere, 20ko hamarkadako eraikina da Gaztelekua dagoena. Horrela, azterketa sakona egitea erabaki zuen Udalak. Sotoko zutabe guztiak aztertu dituzte, eta hainbat zutabe hondatuta daudela ikusi dute. Lanekin hasi aurretik zutabeok konpondu beharko dituzte.

Gauzak horrela, eta prebentzio bezala, gaztelekua ixtea erabaki zuten. Dena dela, gaztelekurako sarrera eta gazte informazio bulegoa zabalik egon dira bi aste hauetan. Topalekua, sotoa, informatika gela eta barrualdean dauden bulegoak itxi dituzte.

**TOKI ALDAKETA AURRERATU EGIN DUTE**
Esan bezala, opor ostean hasiko dira gazteleku berria egiten. Horregatik, zerbitzu guztiak tokiz aldatzeko udako oporraldiak aprobetxatu nahi zituzten Gaztelekuko arduradunek. Orain, baina, aipatutako arazoak direla eta, toki aldaketa hori aurreratu egin behar izan dute. Informatika gela eta informazio bulegoa lehengo bake epaitegian jarri dituzte, Kale Barrian, hain zuzen ere.

Topalekuari dagokionez, institutuko lokal bat erabiltzeko asmoa zuten; dena dela, Eusko Jaurlaritzak ez die oraindik erantzunik eman. Institutuan ez baldin bada, Udalak Bidebarrietako etxebizitza sozialen eraikinean duen lokalean jarriko dute topalekua.

**ANTZUOLA** EZ APARKATZEKO PIBOTEAK

# Piboteak jarriko dituzte behar ez den tokian kotxerik ez aparkatzeko

AINTZANE IRIZAR

Herri guztietako arazoa izaten da kotxeak gaizki aparkatzearena. Antzuolan ere, askok daukate behar ez den tokian aparkatzeko joera. Eta horrek arazo bat baino gehiago sortzen ditu herrian. Izan ere, espaloira igotzeko malden parean, oinezkoendako pasabideen parean edota espaloi gainean aparkatzeko ohitura dauka jende askok.

Hori ikusita, Udaleko arduradunek azterketa egin zuten, eta era horretako arazoak uste zuten baino toki gehiagotan sortzen direla ikusi zuten. Antigua auzoan, esaterako, autobus geltokia dagoen parean, askotan aparkatzen dituzte kotxeak, autobusari traba eginez. Are gehiago; espaloi gainera ere igotzen du batek baino gehiagok. Antiguako ermita parean ere arazo ugari sortzen da.

Azterketa egin ostean, piboteak jartzea erabaki du Antzuolako Udalak. Datorren astean bertan espero dute piboteok jartzea. Dagoeneko udaletxean dituzte. Herriko hainbat lekutan jarriko dituzte, 146 pibote guztira.



Lehengo epaitegian jarri dituzte informatika eta informazio bulegoak. AINTZANE IRIZAR


Deskontuak edo

BENETAKO preziorik onena bilatzen ari al zara?

Preziorik onena nahi baduzu, hasieratik aurkituko duzu HALCON VIAJES-en




PREZIO ESKLUSIBOAK ABUZTUAN!!

IRTEERAK BILBOTIK

| | Prezioa Halcónen | bestelako agentzietan |
|---|---|---|
| **KANARIAK** (7 gau) | | |
| PUERTO DE LA CRUZ | | |
| Orotava Hotela**** (ME) | 97.000 | 110.300 |
| TENERIFE (HEGOALDEA) | | |
| Park Troya Hotela**** (ME) | 94.000 | 107.200 |
| LANZAROTE | | |
| Playa Dorada Hotela**** (ME) | 109.500 | 116.800 |
| **BALEAR IRLAK** (7 gau) | | |
| PALMA MALLORCAKOA | | |
| Sol Pinos Hotela** (MO) | 75.700 | 85.300 |
| IBIZA | | |
| Fiesta Tanit Hotela** (GB) | 118.100 | 140.300 |
| MENORCA | | |
| Almirante Farragut Hotela *** (ME) | 131.400 | 146.400 |
| **TUNEZ** (7 gau) | | |
| Neptunia Hotela *** (ME) | 75.400 | 78.400 |
| Tunez ezezaguna zirkuitua (PA) | 75.800 | 78.700 |
| **TURKIA** (7 gau) | | |
| Aksaray Hotela *** (OG) | 69.500 | 72.000 |
| Istanbul + Kapadozia zirkuitua (PA) | 93.500 | 97.100 |
| **PRAGA** (7 gau) | | |
| Quality Hotela *** (OG) | 85.700 | 99.900 |
| Ciudades Imperiales ***(OG) | 96.400 | 100.400 |

IRTEERAK MADRILDIK

| | Prezioa Halcónen | bestelako agentzietan |
|---|---|---|
| **DOMINIKAR ERREPUBLIKA** (7 gau) | | |
| PUNTA CANA (7 gau) | | |
| Fiesta Brvaro Hotela*****(GB) | 190.400 | 201.100 |
| PUERTO PLATA | | |
| Fun Tropicale&Fun Royale***(GB) | 151.400 | 173.700 |
| **KUBA** (7 gau) | | |
| HABANA | | |
| Tryp Habana Libre Hotela*****(OG) | 168.500 | 179.500 |
| HABANA/VARADERO | | |
| Meliá Habana+Meliá Varadero (OG/OB) | 161.300 | 191.500 |
| VARADERO | | |
| Sol Elite Palmeras Hotela ****(OG) | 176.700 | 183.200 |
| **CANCUN** (Mexiko) (7 gau) | | |
| Club Playacar Hotela **** (GB) | 211.000 | 223.400 |
| Oasis Cancœn Hotela **** (GB) | 250.000 | 264.500 |

ABUZTUAN/URRIAN ERE BAI

OHARRA: PREZIO HORIEK 2001 OPORRAK FOILETOKOAK BAKARRIK DIRA ETA ONDOKOAK BARNE HARTZEN DITUZTE: HEGALDIA, JOAN-ETORRIAK, HOTELA, JATEKOAK (KASUAN-KASUAN) ETA ASEGURUA. EZ DU TASARIK BARNE HARTZEN. KONTSULTATU DENBORALDIA ETA HILABETE BAKOITZEKO DATAK.

HALCON VIAJES-BIDAIAK

CICL 37-03

Informazioa eta erreserbak: 902 300 600

**Euskadiko Lan Elkartuko
Kooperatiben Federazioa**

## ERAKUNTZA



1989ko martxoaren 20an eratu zen Gasteizen Euskadiko Lan Elkartuko Kooperatiben Federazioa, Eusko Legebiltzarrak indarrean daukan Euskadiko Kooperatiben legearen, 1/1982 otsailaren 11koa, babespean.

## FEDERATUTA DAUDEN KOOPERATIBAK

1999ko ekainean federatuta dauden kooperatiba kopurua **351**koa da, lurraldeka banaturik:

- Araba ..............................................61
- Gipuzkoa.........................................156
- Bizkaia ............................................134

## LANGILE BAZKIDEAK



351 kooperatibek **23.532** langile-bazkide dituzte. Lurraldeka banaturik:

- Araba ..........................................1.584
- Gipuzkoa.....................................16.695
- Bizkaia .........................................5.253

## ZERBITZUAK

**Federazioko kooperatibek ondorengo zerbitzuak dohainik hartzeko eskubidea dute:**

- Erakunde-ordezkaritza
- Kudeaketa-tresnak diseinatzea, adibidez:
  - Urteko Kudeaketa Planak
  - Kostuak kontrolatzeko sistemak
  - Jendearen poztasun-maila neurtzekoa
  - Kudeaketaren kalitatea aztertzekoa
- Prestakuntza tekniko eta kooperatiboa
- Merkataritza eta Kreditu Zerbitzua
- Aholkularitza eta informazioa:
  - Juridikoa
  - Soziala
  - Ekonomikoa
  - Zergei buruzkoa
  - Finantzarioa
- Finantza eta komunikazio erakundeekin lankidetza-hitzarmenak lehentasunezko baldintzetan



## FEDERAZIOAREN PRINTZIPIOAK

- Federatutako kooperatiba bakoitzaren autonomiaren errespetua
- Federazioarekiko atxikimendua edo atxikimendu eza norberaren baitan dago
- Elkartutakoen interesen zerbitzuan eta defentsaren helburuarekin
- Barneko gestio demokratikoa

**Reyes de Navarra, 51
Tel.: 945 25 70 88
Faxa: 945 25 39 59
01013 GASTEIZ
posta-e: koop@euskoop.org
www.euskoop.org**



JUAN MANUEL BERRUETA

# *Esteban Uribesalgo*

IMPORT ARRASATE ENPRESAKO BURUA

## “Hego Euskal Herria da gure merkatu nagusia eta nagusi gara hemen, multinazionalen aurretik”

BESTE MARKA BATZUENDAKO

**“Bartzelona eta Athletic Kappak jantzi zituen garaian, elastikoak eta txandalak geuk egiten genituen Barçarentzako, eta txandalak Athleticendako”**

ASTORE ETA TERNUA

**“Gure produktuak ondo saltzen dira jendeak gustuko dituelako eta ez dutelako arazorik ematen, ez prezioagatik”**

Kirolerako eta aisialdirako jantzi eta osagarriak diseinatu, fabrikatu eta banatzen dituen Euskal Herriko enpresa bakarra Debagoienean dago, Mondragoeko Kataide industrialdean, hain justu. Import Arrasate da enpresaren izena, Astore eta Ternua izen komertzialengatik ezagunagoa. Familiarteko enpresa da Import Arrasate, eta enpresako presidente eta zuzendari komertziala Esteban Uribesalgo (Arrasate, 38 urte) da.

ENEKO AZKARATE

**Zer da Import Arrasate?**

Kirol jantziak eta osagarriak fabrikatzen dituen enpresa. Produktua pentsatu, diseinatu, fabrikatu eta saldu. Horixe egiten dugu. Hortaz, prozesu guztia guk daramagu: guk sortzen dugu produktua, guk egiten dugu eta guk banatzen diegu bezeroei. Gure arloan, nahiko enpresa berezia gara. Kirol marka ezagunenek diseinatu eta saldu baino ez dute egiten. Produkzio prozesu guztia azpikontratatu egiten dute. Merkeen produzitzen duten tokiak aukeratzen dituzte: batean Taiwan, bestean Vietnam, Txina edo Afrika. Guk badaukagu abantaila bat, hain justu, gure ardurapean daukagula guztia, produktua pentsatzen hasi eta saltzen dugun arte. Baina, zer edo zer txarto irteten bada gu gara errudun bakarrak, eta, horrez gain, ardura handiagoa daukagu arlo gehiago zaindu behar ditugulako. Baina tira…

**Noiz sortu zenuten enpresa?**

1990ean. Ideia eta Astore marka bera urtebete lehenagokoak dira. Kanpoan fabrikatzen hasi ginen, baina hainbat arazo izan genituen eta guk geuk ekin genion hemengo fabrikan. Lehenengo, Arrasate Kirolak denda zabaldu genuen. Horrelaxe hasi ginen. Orain, fabrikazioan murgilduta gaude eta Arrasateko denda itxi egingo dugu. Ez, ordea, Gasteiz Kirolak. Denda hartan Astore eta Ternua markako produktuak saltzen segituko dugu.

**Arrasateko lantegi horrez gain besterik baduzue?**

Honako hau da fabrikazio etxe nagusia. 54 langile ari gara lantegi hartan. Ia guztiak ibarrekoak gara. Gazteak guztiak ere, 38 urtetik beherakoak. Hemendik kanpo, Gernikan eta Tarazonan lantegi garrantzitsuak ditugu. Han ere egiten dituzte mozketak eta bordatuak, gero inguruko beste tailer batzuetara banatzeko. Tolosan, Gasteizen, Agurainen, Biasterin, Lleidan eta Jaenen ere baditugu jantzigintza tailerrak.

**Goi mailako materiala eta produkzio modu berrienak erabiltzen dituzue.**

Bai, hasi ginenean ez geneukan izen handirik, baina hasiera-hasieratik hornitzaile onenengana joan ginen. Hortaz, munduan dauden materialik onenak eta teknologiarik aurreratuena erabiltzen ditugu.

**Bi marka dituzue, Astore eta Ternua. Zertan bereizten dira?**

Astore kirol marka bat da, sport wear edo janzteko kirol arropen marka. Gure hasierako marka izan zen eta kirol zein aisialdiko jantzien merkatuan kokatu dugu marka. Bestalde, emakumeendako kirol eta aisialdiko arropen merkatuan ere Astore izan zen lehenengoetakoa. Era berean, orain dela bospasei urte Ternua marka sortu genuen, mendiko arropendako. Marka horrek filosofia berezia dauka: abenturazale, mendizale edo naturazale direnendako eta ingurumena maite dutenendako marka da. Orain dela 500 urte bakailaotara edo baleen bila Terranovara joaten ziren gure arrantzaleen filosofiari eutsi nahi dio Ternuak. Merkatuko materialik aurreratuenez egindakoak dira Ternua markako jantziak. Iñurrategik, Oiartzabalek, Belokik, Lazkanok eta abarrek Ternua darabilte. Arrantzaleendako ere arropa bereziak egin ditugu. Kanpora saltzeko aukera handiak ditu Ternuak eta ilusio handiarekin dihardugu.

**Astorek eta Ternuak non saltzen dute gehien?**

Hego Euskal Herria da gure merkatu nagusia eta, gainera, nagusi gara Hego Euskal Herrian multinazionalen —hau da, Adidas, Nike edo Aviaren— aurretik. Katalunian, Aragoin, Levanten eta Espainiako iparraldean, Asturiastik Finisterreraino, oso ondo saltzen da. Nazioartean Irlanda eta Belgika aipa daitezke, baina ez dauka zerikusirik hemen edo Espainian saltzen dugunarekin. Datorren urtean Alemanian aurkeztu gura dugu Ternua, Europako feriarik garrantzitsuenean. Apurka-apurka beste merkatu batzuetan saldu nahi dugu.

**Aipatu duzu lehenengo urteetan beste marka batzuendako fabrikatzen zenutela. Zergatik utzi zenuten?**

Kontuan izan behar da hasiberriak ginela eta Astore marka berria zela merkatuan. Adidas, Kappa, Converse edo Le Coque Sportif markendako lan asko egin ditugu. Bartzelona eta Athletic Kappak jantzi zituen garaian, elastikoak eta txandalak egin genituen Barçarendako eta txandalak Athleticendako. Europako Txapeldunen Liga irabazi zutenean, hemen egindako elastiko eta prakak zeramaten Bartzelonako jokalariek. Sasoi batean, El Corte Ingles enpresako Boomerang markarako ere fabrikatu genuen. Hala ere, bospasei urtetik hona ez dugu lanik egiten beste batzuendako. Zergatik? Beste batzuendako gauzak ondo egiten badituzu, indartu egiten dituzulako eta zure markei ez diezulako eskaintzen behar adina denbora. Orain, Astoreri eta Ternuari eskaintzen dizkiogu indar guztiak.

**Harrera ona dute, gainera, Astorek eta Ternuak merkatuan.**

Bai, gure produktuak ondo saltzen dira, jendeak gustuko dituelako eta ez dutelako arazorik ematen, hau da, kalitatezkoak direlako. Beste produktu batzuk prezioarengatik erosten dira. Ez da gure kasua. Gure produktuak ez dira merkeenak. Ahalegintzen gara prozesu osoa ondo zaintzen. Hasteko, diseinuak politak izan behar dira, eta gero, ganoraz fabrikatu, ondo banatu eta prezioaren eta kalitatearen arteko orekari eusten saiatzen gara. Euskal Herrian oso ezaguna da, neurri batean babesteari esker, hau da, Realak, Asegarcek edo Euskadik erabiltzen dutelako. Baina Santiagon Astore saltzen bada, ez da Realak erabiltzen duelako, gustukoa dutelako baino. Polita eta ona izan behar da, eta zerbitzu egokia eskaini behar da. Gaur egun, milioi bat jantzi egiten ditugu urtean.

**Non daude zuen hornitzaileak? Hau da, non erosten duzue jantziak egiteko oihalak eta gainerako materiala?**

Algodoia, felpak eta abar Katalunian erosten ditugu. Bereziak, hau da, Goretex eta Polartec, esaterako, Estatu Batuetan. Frantziatik eta Italiatik ere ekartzen ditugu. Prakak, elastikoak, biserak, poltsak… egiten ditugu. Kirol oinetakoak, berriz, ez. Beste mundu bat da eta, gainera, Asian egin behar dituzu. Oihalgintzan gara onak, beste batzuk baino hobeak, eta horri eutsi nahi diogu.

**Babestea aipatu duzu. Gaur egun zein kirol talde janzten du Astorek?**

Futbol taldeei dagokienez, Realak, Osasunak, Eibarrek eta Gijongo Sportingek, baita Euskadiko Futbol Federazioak ere. Asegarce, Aspe, Euskadiko Pilota Federazioa… Euskaltelendako kaleko jantziak ere egin ditugu, Alaves jantzi genuen bigarren mailara igo zenean… Gaur egun, guretako ez da negozioa talde horiek janztea, baina irudi aldetik ondo datorkigu, besteak beste, ateak zabaltzeko eta merkaturatzeko lagungarria delako. Lan handia eskatzen du eta produkzio prozesua batendako gogorra da. Orain, Euskadiko selekzioarendako jantzi berria prestatzen ari gara.

**Eta Athleticek, ostera, bere marka sortu du…**

Ikusteko dago ondo aterako zaien edo ez. Ez daukat nahiko informazio iritzia emateko, baina ez nuke euren tokian egon gura. Uste dut urrats arriskutsua egin dutela. Denborak esango du…

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko uztailaren 20a

*Podiuma*

# Aitor Zabaleta |AUTO GIDARIA|

**Aitor Zabaleta gidari bergararrak Udanako igoera irabazi zuen zapatuan. Lola BMW Telefonica barketa gidatu zuen eta ez zuen areriorik izan Udanako aldapetan. Ibilbideko 4.980 metroetan bi minutu, 28 segundo eta 53 ehunen egin zuen. Domekan, berriz, Valdezcaray-ko igoeran irabazle izan genuen. Zabaleta lau aldiz izan da Espainiako mendiko txapelduna eta Euskadiko Txapelketa sei aldiz irabazi du. Euskadikoa berriro lortzeko bidean da.**



Zabaleta, zapatuan Udanako lasterketaren atsedenaldi batean.

**Gorla, Urbasa, Udana eta Valdezcaray-ko probak irabazi dituzu azkenaldian. Ematen du areriorik ez duzula...**

Ez pentsatu horren erraz irabazten dudanik. Arerio gogorrak ditut Euskadiko Txapelketan eta bestelako lasterketetan, lehia handia dago. Egia da gure autoarekin abantaila dudala, baina formulako automobilen kontra borrokatzea ez da erraza, euripean, esaterako. Asfaltoa bustita dagoenean potentzia edukitzea soberan dago, 400 zaldi menderatzea oso zaila delako. Horrelakoetan, formulako automobilak barketak beste dabiltza, eta, gainera, pisu txikiagoa daukate.

**Hala ere, Andres Vilariño da aurre egiten dizun bakarra.**

Bai, azken urteotan hor izan gara borrokan, eta bion artean erabaki dira lasterketa garrantzitsuenak. Azkenaldian gauzak nire alde atera dira, baina ikuskizunaren kalterako, nahi baino gutxiago lehiatu dugu elkarren aurka.

**"Nire autoarekin abantaila dut, baina formulako autoen kontra borrokatzea ez da erraza. Euria bada, potentzia izatea soberan dago"**

**"Nire babesleak aginduta, ez dut Espainiako Txapelketa jokatzen. Nik ere nahiago dut Euskadikoan buru-belarri jardutea"**

**Zergatik erabaki duzu Espainiako Txapelketa ez jokatzea?**

Babesleak aginduta. Azken hiru urteetan Telefonica da nire babesle nagusia eta nahiago dute Euskadiko Txapelketan parte hartzea. Nik ere nahiago dut Euskadiko Txapelketan buru-belarri jardutea, Espainiakoa prestatzea nahiko nekagarria delako; aste barruan autoa prestatu egin behar da eta astebukaeran bidaia luzeak egin behar izaten dira, Valentziara, Andaluziara, Galiziara edo Asturiasera. Gusturago nabil Euskadiko Txapelketan; azken batean, lasterketa guztiak etxetik gertu dira. Askoz ere erosoagoa da. Euskadiko Txapelketan parte hartzeaz gainera, beste lasterketa batzuk ere izaten ditut. Esaterako, Valdezcaray-n korritu nuen antolatzaileak lagunak ditudalako; parte hartzeko eskatu zidaten eta hara joan nintzen. Zapatuan gaueko 9etan bukatu genuen Udanan, eta hiru ordu lo eginda parte hartu nuen Valdezcaray-n, ia ezertarako asti barik.

**Hemen, guztia irabazi duzu. Ez daukazu penarik Europan ez lehiatzeagatik?**

Europan lehiatzeko aurrekontu handia behar da: bidaiak, kamioiak, mekanikoak..., horrek guztiak asko balio du. Uste dut esperientzia nahikoa dudala, baina material ona izateko diru mordoa behar da. Euskadiko Txapelketarako zortzi milioi inguruko aurrekontua daukagu, baina Europarako 50 milioi inguru behar dira eta apustu handia da hori. Bestalde, orain daukagun autoa zaharra da Europan lehiatzeko; teknologia aldetik zaharkituta geratu da gaurko automobilekin konparatuta.

**Urteak daramatzazu automobil berarekin.**

Aurten 12 urte egingo ditut Lola BMW automobilarekin. Motorra berritzekotan gaude: izatez 400 zaldiko potentzia dauka, baina erabileraren ondorioz, nireak 360 zaldi inguru izango ditu, eta falta diren zaldi horiek igarri egiten dira lehia handiko lasterketetan. Ea denboraldi bukaerarako aldatzen dugun.

**Euskadiko Txapelketa berriro irabazteko aukera handiak dituzu.**

Ikusi egin behar. Erreipidean erakutsi beharko da hori. Oraingoz, gauzak ondo ateratzen ari zaizkit.

EDU MENDIBIL



## Gorka Verdugo nafarra garaile Elgetan

Caja Rural taldeko Gorka Verdugo txirrindulari nafarrak Mendiko Kriteriumaren XVII. aldia irabazi zuen domekan Elgetan. Etxarri-Aranazko txirrindulariak hiru segundoko aldea atera zien helmugan Olarra taldeko Iñigo Urretxuari eta Lander Leubari. Partaideek 122 kilometroko ibilbidea izan zuten eta euria izan genuen protagonista nagusietako bat. Elgetan 121 txirrindulari izan ziren, 23 urtetik azpiko amateurrak eta elitekoak, hain zuzen. /E.M.

ATZOKO TXAPELDUNAK

## Jesus Mari Larrañaga
### Futbolaria eta entrenatzailea



Jesus Mari Larrañaga, Atotxan ateratako argazkian.

**Sanse taldean bost denboraldi igaro zituen.**

**Eibarren Ormaetxearen aginduetara jokatu zuen.**

**Bergara taldea 3. mailara igo zuen.**

Labegaraietan jokatzen zen txapelketan ikusi ondoren, Madinabeitia entrenatzaileak Bergarako gazte talderako deitu zuen Jesus Mari Larrañaga. 16 urte zituen orduan. 18 urterekin futbola lagatzeko zorian izan zen: "Ez neukan jarraitzeko asmorik, baina azken orduan preferenteko taldera igo ninduen Sanz entrenatzaileak, eta lehenbiziko partidutik titular izan nintzen". Larrañagak erdialdean, ezker hegalean, jokatzen zuen. Gaztetatik maila ona azaldu zuen eta 21 urterekin Sansera joateko aukera heldu zitzaion: "Proba bat egin nuen eta ondo atera zitzaidan. Lekua egitea zaila zen, jokalari bikainak zeudelako. Kortabarria lesionatu zenean, haren ordez hasi nintzen, zentral postuan, nahiz eta 62 kilo bakarrik pisatzen nuen. Kortabarria taldera itzuli zenean, berriz, Sein Realera igo zuten eta Kortabarriak eta biok elkarrekin jokatu genuen". Sanse hirugarren mailan ari zen eta, besteak beste, Urruti, Olaizola, Arkonada, Satrustegi edo Joan Manuel Irigoien idazlearekin batera jokatu zuen. Bigarren denboraldian izterrondoan lesio larria izan zuen eta ebakuntza egin behar izan zioten. Sansen bost urte igaro zituen: "Exposito oso zorrotza zen eta asko ikasi genuen harekin". 26 urterekin Realera igo zuten, baina ez zuen partidu ofizialik jokatu Andoni Elizondoren taldearekin.

Eibarren (Ormaetxearen aginduetara) eta Bergaran jokatu ondoren, 29 urterekin jokatzeari utzi zion. Bergarako entrenatzailea izan zen, eta taldea 3. mailara igo zen 1970eko hamarkadaren amaieran: "1986an, Fernando Juaristirekin batera, entrenatzen hasi nintzen berriro eta hiru urtez jardun genuen gazteekin eta preferenteko taldearekin. Entrenatzaile izatea zaila da, 11 jokalarik bakarrik jokatzen dutelako". Duela 10 urtetik hona Leya enpresan ari da lanean, Legution. /E.M.

***"Sansen lekua egitea zaila zen, jokalari bikainak zeudelako. Jabier Exposito entrenatzailea oso zorrotza zen eta asko ikasi genuen harekin"***



Jesus Mari Larrañaga • Bergara • 1948

# Felix Iñurrategi-Baltistan Fundazioa

## Udazkenean aurkeztuko dute fundazioa, Bilboko Euskalduna jauregian izango den jaialdian

**Zoritxar batek gauza on gutxi dakar, baina Felix Iñurrategiren heriotzaren ondoren zerbait egin beharra zegoela sumatu zuten ibarreko hainbat lagunek. Felixen nahiei eta hark behin baino gehiagotan aipatutakoari jarraituta, lagun talde horrek asmo trinkoa hartu zuen: Pakistango eskualde bateko garapen ekonomiko eta kulturala bultzatzea, hain justu. Hori bideratzeko asmotan sortu zuten orain hilabete gutxi Felix Iñurrategi-Baltistan Fundazioa.**

Urriaren 12an Bilboko Euskalduna jauregian egingo den jaialdiak hiru helburu izango ditu: lehenik eta behin, Felix Iñurrategi-Baltistan Fundazioa gizarteratzea; horrez gain, Fundazioaren helburuak betetzeko dirulaguntzak beharrezkoak dira, eta jaialdiak harpidetza kanpaina abian jartzeko balioko du; azkenik, uztailaren 28an Aretxabaletako herriak Felixi omenaldia egingo dion arren, jaialdi horretan Himalaian hildako mendizalea guztion gogoan izango da. Jaialdia Euskal Telebistak zuzenean emango du, eta antolatzaileen esanetan goi mailako ikuskizuna izango da.

**FUNDAZIOAREN HELBURUAK**

Felix Iñurrategi-Baltistan Fundazioaren helburu nagusia da eskualde horretako garapen ekonomiko eta kulturala bultzatzea, eta horretarako hainbat proiektu ditu esku artean.

Baltistan herriaren bizibide nagusia nekazaritza da, baina mendizaleendako egiten dituzten zamaketa lanekin dirulaguntza polita lortzen dute. Hala ere, baltiarrak ez daude goi mendian ibiltzeko trebatuta, eta askotan arriskuan jartzen dute euren bizitza. Hori konpontzeko, Karakorum-en mendi eskola eraiki zuten orain urte gutxi, eta Felixen heriotza eta gero, hango biztanleek proposatu zuten eskolari Felixen izena jartzea. Fundazioaren helburuetako bat da, Felix Iñurrategi Mendi Eskola berria eraiki eta gidari eta zamaketariak trebatzeaz gain, eskola materialez hornitzea. Horrela, gai izango dira mendian izaten diren hainbat arrisku ekiditeko.

Mendi eskola proiektu erakargarria bezain beharrezkoa bada ere, lurralde honek beste gabezia batzuk ere baditu. Fundazioaren beste helburuetako bat da Baltistango Machulu herria urez hornitzea; izan ere, hango bizilagunek egunero hainbat kilometro egin behar izaten dituzte ura hartzeko. Gabezia horren garrantziaz jabetuta, irtenbide egokiena zein izan daitekeen aztertzen ari dira. Kontua da ura eskuratzeko hemen erabil ditzakegun bitartekoak eta han erabili beharko dituztenak ez dira berberak.

Une honetan bi teknikari daude Machuluko herrian, uren kanalizatze eta biltegiratze egokirako ikerketa egiten. Lanek ura ekarriko dute herriko etxe guztietara; eta, horrez gain, lehorte garaietan uztak ez galtzea bideratuko luke.

Hori guztia egiteko, fundazioak guztion laguntza beharko du, eta urritik aurrera edozeinek fundazioko bazkide izateko aukera izango du, eta horretarako, urtean 25 euro ordaindu beharko ditu. Horrez gain, mendi eskolarako materiala ere jasoko dute; hortaz, erabiltzen ez duzuena eurei utzi, ederki aprobetxatuko dute-eta.

XABIER URZELAI



Felix Iñurrategiri omenaldia eskainiko zaio datorren uztailaren 28an Aretxabaletan.

## Herri bat bere semea omentzeko prest

**Uztailaren 28an, Felix Iñurrategiri omenaldia izango da Aretxabaletan, eta Udalak eta herritarrek omenaldi polita eskaini nahi diote. Dagoeneko ia urtebete pasatu da albiste txar hura jaso genuenetik hona, baina denbora ez da alferrik pasatu. Anaiak, Albertok, oztopo guztiei aurre egin eta beste helburu batzuen artean, Gasherbrum I.a igo berri du. Hori gutxi balitz, urrian aurkeztuko da Felix Iñurrategi-Baltistan Fundazioa, herri horri laguntzen saiatuko den fundazioa, hain justu. Duda barik, Felixek begi onez ikusiko luke hori guztia. Jadanik urtebete pasatu da, baina gaur ere argitu dik, Felix!** /X.U.





# JAIAK Antzuola

GEHIGARRI BEREZIA • 2001eko uztailaren 20a





Bergarako Gazteen Banda.



Iaz bezala, euripean egin behar izan zuten aurten ere alardea.



'Rekolore' ikuskizuna domekan izan zen.

ARGAZKIAK: AINTZANE IRIZAR



Eguenean, txikienen dantza saioak eman zien hasiera jaiei.



Egubakoitzeko GOITBko albistegia Antzuolan grabatu zuten.



Aurten ere ez dute hutsik egin Lizasok eta Egañak.



Jaiak agurtzeko, zer herri bazkaria baino hoberik.



Umeek primeran pasatu zuten gaztelu puzgarrietan.



Gaztetxekoek rock jaialdia antolatu zuten.

# Goienka2a

Egubakoitza / 2001eko uztailaren 20a

Kultura eta Aisialdia

Uztailaren 20tik 27ra

# putz

## aldizkari apokaliftinzalea

Apokaliftin Kultur Elkarteak erronka berri bati aurre egin eta 100 orriko *Putz* aldizkari mardula kaleratu du, 9. eta 10. zenbakiak batzen dituena, ohiko prezioaren truke. Udan patxadaz irakurtzeko aproposa da zenbaki berria, eta ziur haren irakurketa ederto gozatuko dugula. *Putz* eta beste produktu batzuk kaleratzen dituen Apokaliftin Kultur Elkarteak urte eta erdi lanean daramala aprobetxatuz, aldizkariaren *erredartaburua* den Diego Martiarturekin mintzatu gara. /14

IKER BARANDIARAN



**"Putz baserritar ilustraduendako aldizkari abertzale heterodoxoa, psiliklonikoa da. Beroa, zuku eta isuriz betea**

**DIEGO MARTIARTU**

GOIO ARANA /ARGAZKIA: IKER BARANDIARAN

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko uztailaren 20a

Argitalpenak | 'Putz' aldizkariako erredaktoreburu Diego Martiarturekin berriketan

# Urte eta erdiko putza ospatzeko, ale bikoitza

APOKALIFTIN KULTUR ELKARTEAK URTE ETA ERDI BETE DU ETA 'PUTZ' ALDIZKARIAREN ALE BIKOITZA ATERA DU OHIKO ESTILOAN

**Apokaliftin Kultur Elkarteak urte eta erdi bete du, eta hori ospatzeko *Putz* aldizkariaren zenbaki bikoitza kaleratu du ohiko salneurrian! Ale honek (9.a eta 10.a batzen dituenak) ohiko estilo eta edukiez jantzitako 100 orrialde ditu, eta uda freskatzeko aproposa da. Aldizkariaren eta elkartearen inguruan mintzatu gara Apokaliftineko Diego Martiarturekin.**



Diego Martiartu *Putz* aldizkariko partaidea baserritar ilustratuekin bat eginez.

IKER BARANDIARAN

**Nola sortu zen *Putz*? Zein helburu nagusi jarri zenituzten sorreran?**
Balentin Tramon eta beste bat izan ziren bultzagileak. *Ostiela!* aldizkaritik zetozen biak eta beste proiektu bati ekiteko bailarako jendeari deitu ziguten. Joxe Otadui, I.I.Barandiaran, Karlos Etxenausia... Gerora Asier Serrano, Zubix, Arixa, Mikel Markez, Paddy Rekalde, Eneko, Jon Etxeberria eta beste batzuk sartu ziren. Horrela eratu zen Apokaliftin Kultur Elkartea. Helburua aldizkaria eta beste produktu batzuk kaleratzea zen, beti ere ondo pasatuz, libertituz.

**Espero zenuten aldizkariak izan duen bilakaera eta harrera? Zuen asmoak beteaz doaz?**
Euskaldunok komunitate txikia osatzen dugu, eta jende askok ez du irakurtzen, beraz, 500 bat ale saldu eta 250 harpide izateari ondo deritzogu. Hala ere, uste dugu kopuru hori bikoiztu daitekeela, eta horretan ahaleginduko gara. Azpiegitura sendotuaz doa, eta hainbat proiektu darabilgu esku artean. Gero eta jende gehiagok ezagutzen du *Putz* eta irakurtzen dutenek animatu egiten gaituzte.

**Zeintzuk dira *Putz* ezagutzera emateko dauzkazuen zailtasunak?**
Ez daukagu aita pontekorik, ez alderdirik, ez enpresarik babesten gaituenik. Lagun koadrila bat gara, ilusio eta gogo handiz gabiltzanak. Adibidez, banaketa egiteko gu geu gabiltza Euskal Herri osoan. Baina oraindik ez gara heldu guk nahiko genukeen leku guztietara. Muga ekonomikoak ere hor daude. Erakundeen dirulaguntzak beharrezkoak ditugu, eta orain artekoak bizirauteko bakarrik ematen du.

**Apokaliftin Kultur Elkarteak bi hilean behin *Putz* kaleratzeaz gain, beste produktu batzuk ere bultzatu ditu...**
Bai, bi liburu argitaratu ditugu ("Hamahiru eta bat", "Puntu eta koma etilikoak"), egutegi bat, CD bat eta animazio liburutxo bat. Hemendik eta Durangoko Azokarako Asier Serranoren liburu bat, literatura musikatua biltzen duen beste CD bat eta *Putziklub.com* webgunea prestatuko ditugu. Beste gauza asko argitaratzeko asmoa daukagu baina ez daukagu nahikoa diru.

**Nola definituko zenuke *Putz*?**
*Putz* baserritar ilustraduendako aldizkari abertzale heterodoxoa, psiliklonikoa da. Aldizkari beroa da, tropikala, zuku eta isuriz betea. Seriotasuna alde batera utziz, barrerako eta era orotako parrastadak askatzeko balio du.

**Euskarazko beste aldizkariekin alderatuz gero, oso produktu desberdina eskaintzen duzue...**
Aldizkari bakoitzak bere lekua dauka, eta proiektu honi ekin genionean hutsunea somatzen genuen albiste, elkarrizketa eta bestelakoen tratamenduan. Oso inportantea da geure buruari barre egitea eta horretarako ironia, parodia eta satira lantzen ditugu, besteak beste. Baina gauza serioak ere badaude, sakonak, gogoetarako aproposak.

**Zuen lan egiteko modua ere berezi samarra da, ezta?**
Militantzia-lan handia dago *Putz*-en atzean. Jende askok laguntzen du idazten, ideia berriak ekartzen, banaketan, argazkiak egiten eta abar... Militantzia-lan hori gabe, *Putz* ez litzateke bizirik egongo, eta taberneroek eta zenbait dendarik erakusten duten sentiberatasuna itzela da. Arrasateko Udalak eskaini digun laguntza ere ez da makala: lokala, publizitatea, dirua...

**Jende askok irudi zein testu pornografikoekin identifikatzen du *Putz*. Zer deritzozu?**
Hori guretzat laudorioa da. Aurreko batean Bartzelonako neska batek idatzi zigun esanez gure ipuinak irakurriz euskara ikasi, ondo pasatu eta bero-bero jartzen zela. Hori baino kritika hoberik ez dago!

**Zein da *Putz*-ek daukan gauzarik onena? Eta txarrena?**
Askatasuna, edozer gauza edozein ezizenpetan idazteko aukera. Garrantzia edukiari ematen diogu, eta ez egilearen izenari. Txarrena, proiektu gehiago aurrera ateratzeko gogoa eta ideiak eduki baina ekonomikoki ezin aurre egitea. Santa eskean ibiltzea ez da goxoa.

**Nola ikusten duzu euskarazko produktuen eskaintza?**
Kalitate oneko gauzak argitaratzen dira, baina zenbatek irakurtzen dituzte? Zenbat hazi da euskal irakurleen kopurua azken hogei urteotan? Batzuetan irudipena daukagu euskal kultura, kultura birtuala ez ote den.

***Putz*-eko arduradun izango ez bazina, zertan arituko zinateke?**
Auskalo. Ofizio askotan ibilia naiz, baina ez dut probetxuzko gauza handirik egin. Hau ofizio izateaz gain, afizio ere badut. Ume bati entzun nion behin, nagusitan zer izan nahi zuen galdetu ziotenean: turista. Nik ere horixe izan nahi nuke. Bitartean, ipuin likitsak idazten jarraitu behar...

**Zer esango zenieke gaiztotzat jotzen zaituztetenei?**
Gaiztoak gu? Bo, bo, bo... Torturak isiltzen dituztenak, Belarri Handiaren esanetara makurtuta idazten dutenak, Euskal Herria zapaltzeko luma pistola gisan darabilten kazetariak... Horiek bai gaiztoak! Horrelakoen aldean gu aingerutxoak!

IKER BARANDIARAN

**"Ez daukagu aita pontekorik, ez alderdirik, ez enpresarik babesten gaituenik. Ilusioa duen lagun koadrila gara"**

**"Edozer edozein ezizenpetan idazteko aukera daukagu. Garrantzia edukiari ematen diogu eta ez egilearen izenari"**

**"Zenbat hazi da euskal irakurleen kopurua? Batzuetan zalantzak ditugu ea euskal kultura birtuala ez ote den**

**"Jende askok laguntzen du *Putz*. Militantzia-lan hori barik *Putz* ez litzateke oraindik bizirik egongo"**

Kronika | **The Big Jamboree¨s Bergarako Espoloian**

# The Big Jamboree's show: festa nagusi

**Noiz:** uztailak 13. **Non:** Bergarako Espoloiko zumardian. **Batutakoak:** 300 bat lagun, zumardi ingurua beteta. **Iraupena:** Ia bi ordu, hain justu, 22:25etik 00:15era. **Musikariak:** Ignasi Poch (saxo altua), Dani Pérez (saxo tenorra), Cesc Miró (tronpeta), Manolo Casado (gitarra), Juan Ramón Vega (kontrabaxua), Marc Ferrer (pianoa), Emilio Torres (bateria) eta Mike G. Garro (ahotsa).



The Big Jamboree talde katalandarrak show ederra eskaini zuen joan zen egubakoitzean Bergaran.

**Joan den egubakoitzean, Bergarako Espoloian Big Jamboree taldea entzuteko elkartu ginen guztiok, 40 eta 50 urteetara eraman gintuen euren musikak ia bi orduz. Musikari onak, musika-festa bikaina eta tokia ere primerakoa, Espoloiko zumardiak hezi handiegia eduki arren eta musikariak ikusteko zailtasunak dituzten arren ikus-entzuleek.**

Bartzelonako lokal batean entzun zituen lagun talde bati esker izan nuen euren berri —normalean, Bartzelonako El café Belgrado edo La boite aretoetan jotzen dute, baita Manresa, Vilafranca del Penedes edo Gironako beste batzuetan—, eta lagunek esan bezala, ikusteko modukoa izan zen.

Hasiera-hasieratik, ezezagunak izanda ere, ikus-entzuleon eta taldearen artean harreman estua sortu zen. Oso zaila zen jotzen zuten musikak eramaten ez uztea. Lehenengo abestiak entzun genituenetik, guztiok egon ginen abesten, dantzan eta erritmoari eskuekin eusten taldekideek lagunduta.

Banda zortzi musikarik osatzen zuten. Aire atalak (saxo altua, saxo tenorra eta tronpeta), atal erritmikoak (gitarra, pianoa, kontrabaxua eta bateria) eta ahotsak.

**Hasiera-hasieratik, ezezagunak izanda ere, ikus-entzuleon eta taldearen artean harreman estua sortu zen. Lehenengo abestiak entzun genituenetik, guztiok egon ginen abesten, dantzan eta erritmoari eskuekin eusten taldekideek lagunduta**

Garaiko formazio klasikoa zen, bai instrumentuen aldetik, bai jantziengatik zein itxurarengatik; eta horrela, lehenengo Jazz orkestrek eta geroago Rock and Rollekoek, night club-etan milioika pertsona ero modura dantzan jartzen zituzten garai haietako giroa islatzen zuten.

Show-ak iraun zuen asti guztian, ez ziguten arnasa hartzeko une bat bera ere eman. Musikari kataluniar hauek, egiten dutena ondo egiten dutela erakutsi zuten, ikus-entzuleok etengabe tentsioan edukiz, boogie-boogie-n eta beste kanta batzuen bitartez.

Beti esan izan dute, eta ni erabat ados nago, ikus-entzuleekin bat egiteko modurik onena, musikariek eurek, egiten dutenarekin gozatzea dela. Hori da Espoloian igarri genuena. Goraipatzekoa da, zaleen talde bat, asteburuetan bakarrik entseatuta, horrelako kalitate musikal eta artistikoa lortzeko gai izatea. Biharamunean Gijonera joan behar zuten beste kontzertu bat ematera. Seguru guk beste gozatu zutela.

Gau berezia izan zen, jai gaua, bai musikariek bai ikus-entzuleok konpas beraren arabera dantzan egin genueneko Rock and Roll gaua.

Bergarako Udalak ideia ona izan du uda partean era honetako musika emanaldiak antolatzen.

ALFREDO GONZALEZ CHIRLAQUE

## Nire aukera

### Itziar Iturbe
### Cool Panic taldeko abeslaria



1972an argitaratutako diskoa da eta nire ustez 70eko hamarkada da rock musikaren historiako onena. Duela 10 urte entzun nuen lehen aldiz eta harrituta geratu nintzen oinarrizko instrumentuekin oso musika zuzena eta biribila egiten duelako. Oso era ezberdineko kantuak osatzen dute diskoa, denak maila handikoak. Diskoko beste kantu batzuk gehiago gustatu arren, *Rock 'Roll Suicide* kantua nabarmenduko nuke, Bowie-ren ahotsarekin bakarrik hasi eta indar handiz amaitzen duelako, hau da, egoera batetik bestera igarotzen delako dotoretasuna galdu barik. Bowie-k 80ko hamarkadan kaleratu zituen beste disko batzuk ez zaizkit horrenbeste gustatzen.

**'ZIGGY STARDUST'**
**David Bowie**



ENEKO AZKARATE

## Kaleratu berriak

**Iban Arantzabal**

LIBURUA | *Hiztegi eran*



**MAGRITTEK EZ OMEN ZUEN PIPATZEN**
Fito Rodríguez
Txalaparta

Koldo Izagirrek sarreran: "Liburu honek erakutsi dit filosofia ez dela Magrittek erretzen ez omen zuen pipa horren ke inposibleari buruzko jarduna. Zorrotz dihardu egileak egunero pipatzen ditugun gezurrez, jakinduriaz hausten du gezurraren azala, umorez erakusten digu azalaren azpiko azala. Honenbestez esana dago biziki gomendatzen diedala liburu honen irakurketa mota guztietako irakurleei, baita ni bezala filosofia ulertezina egiten zaienei ere. Are gehiago halakoei".

LIBURUA | *Eleberria*



**SPRAKO TRANBIA**
Unai Elorriaga
Elkar
150 orrialde

Umorea eta pentsamendu kuriosoak erabili ditu Unai Iturriagak eleberri honetan. Batez ere tranbiak, elurra eta txokolatea maite badituzu, irakurtzeko moduko liburua duzue Elkarrek argitaratutakoa. Lehen obra izateko, maisutasunez idatzia dagoen obra da eta agure baten eromen prozesua, izugarria izanda ere, espanturik gabe kontatzen da. Algaraka hasteko baino, umore fin eta ironiaz goza daiteke orriak pasa ahala. Jolasak, paradoxak eta bestelako keinuak *SPrako tranbian.*

DISKOA | *Betiko kantak*



**HERRIKO KANTUAK**
Askoren artean
Elkarlanean
14 kantu

Euskal musikaren kultura deitzen dioten horren barruan kokatzen da lan hau. Barruan zer? Bada, betiko kantuak: Oskorri, Laboa, Benito, Guk taldea, Pier Paul Berzaitz, Martikorena edo Lete tartean. Ez nuke inor ahaztu gura, eta badira Pantxoa eta Peio, Maddi eta Oyhenart, Txomin Artola... Baina laburbil zitekeen eta "euskal kantariak" etiketa jartzen dioten horiek direla esan, urteek aurrera egin ahala beste hainbat euskal kantari ere badiren arren.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko uztailaren 20a

Zinema | 'Aita guria' laburmetraiaren filmaketa Elgetan

# Hirugarren film laburra grabatu du Jon Andueza arrasatearrak

MARTITZENEAN HASI ETA EGUENERA BITARTEAN EGIN DUTE GRABAKETA, ELGETAN, ETA IRAILEAN EGINGO DUTE MUNTAIA







**Elgetako hilerrian emakume bat dago, bakar-bakarrik. Negar malkoetan blai, bere leporako berbetan ari dela ematen du. Halako baten, gizon gazte bat hurreratu zaio, eta berbetan hasi dira. Emakumearen ahotsa gero eta ozenagoa da… eta azkenean, emakumeak, haserre, gaztea jo eta hanka egin du.**

Orduan, Jon Andueza agertu da: "Ondo dago, baina berriro egingo dugu". Eta aktoreak eta teknikariak errepikapenerako prestatu dira.

Horretan, sekuentziak grabatzen eta grabatzen, jardun dute Jon Andueza arrasatearrak eta bere lan taldeak aste honetako martitzena eta eguena bitartean. Jonek zuzendutako film labur bat egiten ari ziren. *Aita Guria* izango du izenburua, eta zertaz izango den Jonek berak azaldu digu: "Apaiz batek aitormenaren sekretua dela-eta dituen buruhausteen inguruko istorioa da. Hamazazpi urteko neska bat da beste protagonista". Filmak duen dramatismo eta misterioa ez zapuzteko, hobe gehiago ez kontatzea…

## LAGUN ARTEKO LANA

Jon Anduezak soberan daki zer den film bat egitea, *Aita Guria* bere hirugarren film laburra izango da eta. Igartzen zaio, bai, zein gustuko duen zinema mundua. Izan ere, ikasketez kazetaria izan arren, jarduera hori baztertua du, eta zuzendari, hari-idazle, aktore… bezala egiten du lan. *Aita Guria*-ko "aita" bera da: zuzendaria izateaz gain, gidoia idatzi du, eta antzezpen txikia ere egin du.

Filman azalduko diren bederatzi antzezleetatik bat izango da; gainerakoak lagunak ditu guztiak Jonek. Izan ere, proiektua bera lagun arteko kontua da, kasualitatez sortua: Donostian, *Hasiberriak* telesailean lanean ziharduten hainbat lagun elkartu ziren. Giro polita sortu zen, izan ere, antzeko irriki eta helburuak zituzten guztiok. Telesaila bukatzeko zorian zegoen, eta oporretan elkarrekin lanen bat egitea erabaki zuten.

Aktoreak biltzearena, hortaz, ez zen arazoa izan Jonendako: "Euskarazko film labur bat bezalako lan alternatiboa egiten duzunean, diru mordoa eta ekoiztetxe handi barik, kolaboratzaileak lagun artean aurkitzea duzu errazena. Jende eske hasi nintzenean, guztiak poz-pozik etorri zitzaizkidan", esaten du zuzendari arrasatearrak. Aktoreetariko batzuk ezagunak ditugu; beste batzuek orain dela gutxi ekin diote antzezpenean lan egiteari: Martxelo Rubio, Oihana Maritorena, Gorka Igartua, Mikel Antero (*Hasiberriak* telesaileko Guti eta Jokin, hurrenez hurren), Alicia Otxoa, Jon Zubiaga -azken hau mondragoetarra-, Iban Arantzabal eta Josema Langaran dira aktoreak, Jonez beraz gainera.

## HELBURUA, GUSTURA GERATZEA

Elgetatik mugitu barik errodatu dute material guztia: kanpoko planoak hango hilerrian, Asentzioko ermita inguruan eta herriko hainbat txokotan egin dituzte; barruko eszenak, Elgetako udaletxean. Bestalde, hasieran istorioa iraganean girotzeko asmoz ibili arren, azkenean gaur egunean girotu du Jonek. Horrek guztiak badu arrazoi bat: iraganean girotzeak garestitu egin izango zukeen errodajea.

Jon Anduezak jarrera xumea eta errealista erakusten du film horrekin lortu gura dituen helburuez berba egiten duenean: "Giro politean ibiltzea, lan txukuna egitea eta ondo pasatzea, horiexek dira gure asmoak. Filma euskaraz denez, ez dugu aparteko arrakastarik espero; baina gu geu egindakoarekin gustura gelditzen bagara, nahikoa izango dugu".

LEIRE KORTABARRIA









ARGAZKIAK: JULIO CALLEJA

# JON ANDUEZA

## "Euskaraz, film laburrak baino ez dira egiten, eta gutxi, gainera; alde horretatik, egoera negargarria da"

**Kazetari moduan ezagutu bagenuen ere, gaur egun zineman ari da buru-belarri Jon Andueza (Mondragoe, 1966). *Aita Guria*, zuzendu duen hirugarren film laburra izango da; aurretik, *Laugarren Galeriatik* eta *Bernar* egin zituen, eta baita saharar herriaren gaineko dokumental bat ere, *Fatimetu*.**

**Orain arte, grabaketa egin duzue; gero, editatu egin beharko da... Bukatuta, noizko?**

Datorren astean oporrak hartuko ditugu, eta nor bere aldetik ibiliko da. Hortaz, irailean elkartuko gara berriro, eta orain artekoari helduko diogu. Nire ustez, urrirako edo azarorako bukatuta izango da filma.

**Eta orduan, zer gertatuko da? Zein asmo dituzu?**

Hiru bide ditugu. Alde batetik, telebistan emateko aukera dago; eta filma euskaraz denez, Euskal Telebistarekin saiatuko gara, baina herri telebisten aukera ere hortxe dago. Beste aukera bat jaialdietan eta lehiaketetan aurkeztea izango da. Aurretik egin ditudan film laburrekin, alde horretatik, oso zorte ona izan nuen; *Aita Guria*-rekin ere saiatuko naiz, eta ea ba oraingoan ere zortea dudan...! Eta hirugarren bidea, berriz, euskaraz errodatu diren beste film batzuekin bat egitea da. Kontua da euskaraz oso film gutxi egiten direla, eta bat egiten badugu, gauzak erraztu egingo zaizkigu. Lehendik badut horrelako esperientzia bat: beste bi edo hiru zuzendarirekin elkartu nintzen, eta 40 herritik goratan erakutsi ahal izan genituen gure lanak.

**Hain txarra da, baina, euskarazko zinemagintzaren egoera, besteekin elkartu behar izateko?**

Euskaraz, film laburrak baino ez dira egiten, eta gutxi, gainera; alde horretatik, hortaz, bai, egoera negargarria da. Film bat egitera ausartzen denak gurago izaten du, behin erabaki hori hartuta, gaztelaniaz grabatzea, oihartzun handiagoa izango duelakoan. Azken finean, jarrera kontua da. Neuri hariak euskaraz idaztea gustatzen zait, inguruan euskarazko zinema egitearen kezka berbera duen jendea aurkitu dut, eta aurrera egitea erabaki dugu beti. Orain arte, gauzak ondo irten zaizkigu.

**Dirulaguntzarik eskatu duzu?**

Ez. Gure kabuz lan egitearen aldeko apustua egin dugu. Dirulaguntzek gauzak atzeratzen dituzte, alde batetik; gero, dirua jasotzen duzun neurrian, produktuaren gaineko kontrola galtzen zoaz. Bestalde, Arrasateko Udalak oso jarrera ona izan du nire aurreko bi film laburrekin, eta Getxoko Udalaren laguntza ere espero dugu; baina, hortik aurrera, ezer ez.

**Hala ere, film luzeren bat egingo duzu inoiz?**

Film laburra egiteak ahalegina eskatzen badu, pentsa luzeak! Horrelako lan batek dirua eskatzen du, eta gauzak zaildu egiten dira. Dena dela, nik badut asmo hori, eta zinema egitea ikasketa prozesua ere badenez, uste dut noizbait iritsiko dela saltoa egiteko *garaia*. *Baina gauza hauek pazientziarekin hartu behar dira.* /L.K.



### Martxelo Rubio
### "On Karlos"

Aitormen sekretupean kontu larri bat jakin du on Karlos apaizak. Kontu horrek beste baten baterengan eragina du. Zer egin? Hori da protagonistaren buruhaustea, eta horrek erakarri zuen Martxelo Rubio aktorea: "Pertsona moduan gauza bat egin behar duela uste du, eta apaiz moduan, beste bat".



### Oihana Maritorena
### "Nerea"

Goenkale eta *Hasiberriak* telesailetan egin du lan Oihanak. *Aita Guria* bere bigarren film laburra da. Bere pertsonaiaren gainean, honakoa dio: "Pixkana-pixkana, hazten doa; hasieran, oso neska umila da, baina gerora, barruan daramana askatzen du. Hori da gehien gustatzen zaidana".



### Mikel Antero
### "Niko"

Paper motza egiten du Mikel Anterok *Aita Guria*-n. Nerearen, protagonistaren, lehengusuarena egiten du, eta eszena pare baten agertzen da. Mikelek zera diosku bere pertsonaiaren gainean: "*Hasiberriak* telesailean egiten dudanaren guztiz aurkakoa da. Bai estetika, bai izaera aldetik".



### Josema Langaran
### "Trabuko"

Bi lan egokitu zaizkio Josemari: aktoreen zuzendaritzan dihardu, eta baita antzezle lanetan ere: "Kalean bizi den gizon batena egiten dut. Oso gutxi agertzen da, baina garrantzitsua da istorioan", esan digu Josemak. "Gidoia interesgarria zen, Jon laguna dut, eta jardun polita iruditu zait".

# Uztaila: 20-27

**Edu Mendibil** / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12.00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **erredakzioa@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## Dantza

### ARRASATE

**> Nazioarteko Folklore jaialdia: Gran Ballet Argentino.** Martitzenean, hilak 24, Monterron parkean, 22:30ean.

### BERGARA

**> Folklore jaialdia** egubakoitzean, hilak 20, Udal Pilotalekuan, 22:30ean. Ourenseko Castro Foloxo eta Bergarako Xamatz dantza taldeekin.

## Musika

### BERGARA

**> Cool panic, Requiem, Supercools** eta beste talde bat egubakoitzean, hilak 20, gaztetxean, 22:30ean. Gaztetxearen lehen urteurrena.

**> Once varas** pop-rock flamenko taldea egubakoitzean, hilak 20, Artekale pizzerian, 23:30ean.

**> Freddy Lynxx & The Corner Gang, The Snobs** eta **Tuperguarros** martitzenean, hilak 24, Jam aretoan, 22:00etan. Johnny Thundersen omenezko jaialdia.

**> Mac Jeara´s Band** taldearen jazz kontzertua eguenean, hilak 26, Espoloian, 22:00etan.

**> Massimo Nossetiren** organo kontzertua abuztuaren 8an San Pedro parrokian, 20:00etan.

### SORALUZE

**> Mermaid** taldea astelehenean, hilak 23, gaztetxean, 23:00etan.

## Erakusketak

### ARRASATE

**> Koldo Gojenolaren** margo erakusketa Toki-Eder kafetegian.

### BERGARA

**> Pilar Muñoz** bilbotarraren margo erakusketa Nahikari tabernan, hilaren bukaerara arte.

**> Juan Jose Altuna Akizuren** margo erakusketa La Caixako bulegoan (Fraiskozuri, 7) abuztuaren amaiera arte.

## Lehiaketak

### ARRASATE

**> Jokin Zaitegi itzulpen laburren XV. sariketa.** Lehiaketa honetan edozeinek har dezake parte. Aurtengo gaia "Energia iturriak XXI. mendean" izango da, eta lehiaketara munduko edozein hizkuntzatatik itzulitako idazlanak aurkez daitezke. Jatorrizko testuen lehen argitalpena 1998, 1999, 2000 edo 2001 urteetan argitaratua egon behar du eta Internetetik hartutako testuen aintzinatasuna ere egiaztatu beharko da. Testuaren luzera 15-30 orrialde bitartekoa izango da. Irabazleak 1.250 euro eskuratuko ditu eta bigarren saria 625 eurokoa izango da. Lanak urriaren 31 baino lehen entregatu beharko dira. Argibideak AED elkartean, 943 77 12 28 telefonoan.

**> Argazki lehiaketa** deitu du Arrasateko Udalak. Lanak aurkezteko epea urriaren 11ra arte izango da zabalik. Zuribeltzeko zein koloretako argazkiak aurkeztu ahal izango dira. Argibideak udaletxean, 943 79 09 00 telefono zenbakian.

### ELGOIBAR

**> Komiki lehiaketa.** Elgoibarko Kultura Zerbitzuak eta Kokoe komikilarien taldeak komiki lehiaketa antolatu dute. Gura duenak parte har dezake lehiaketan. Komikiek lau orriko luzera izan beharko dute, 18x24 zentimetroko formatuan eta zuri-beltzean. Hiru sari nagusi izango dira: 80.000 pezeta lehenengoarendako, 60.000 pezeta bigarrenarendako eta 40.000 pezeta hirugarrenarendako. Urriaren 11 arte izango da lanak aurkezteko epea: Kultura Zerbitzua, Nafarroa plaza 3. 20870 Elgoibar.

### GASTEIZ

**> Gazteen Bideo Amateurraren IX. Erakustaldia.** Filmak (hiru kopia VHS sisteman) aurkezteko epea uztailaren 31n bukatuko da. Lan onenentzat sariak egongo dira. Argibideak 945 28 61 42 telefono zenbakian.

### ZALDIBAR

**> Zaldibarko toponimia** jaso eta finkatzeko lehiaketa. Lana egiteko 12 hilabete izango dira eta lehiaketaren zenbatekoa 1.800.000 pezeta izango da. Norbanakoek nahiz horretarako osatutako lantaldeek eskatu ahal izango dute lehiaketan esku hartzea. Lehiaketan esku hartzeko unibertsitate titulduna izatea beharrezkoa da. Eskariak aurkezteko azken eguna uztailaren 26a izango da. Argibide gehiago 94 682 70 16 telefono zenbakian.

### DEBAGOIENA

**> Kirol materiala euskaraz sortzeko beka,** Deba arroko euskara eta kirol zerbitzuek deituta. XII. aldiaren helburua da hiru arlotako fitxa didaktikoak sortzea: naturako ekintzen gainean, oinarrizko soin hezkuntzaren gainean eta xakearen gainean. Edozeinek eska dezake beka, baina kontuan eduki behar da ez dela zuzeneko itzulpenik onartuko. Norbera nahi beste beketara aurkez daiteke. Beka bakoitzak 500.000 pezetako ordainsaria izango du. Lana egiteko epea beka esleitzen denetik hasita bost hilabetekoa izango da. Eskaerak aurkezteko azken eguna urriaren 18a izango da. Argibideak 943 77 91 67 telefono zenbakian.

## Ikastaroak

### ARRASATE

**> Gorputz lan bioenergetiko taldea.** Eguaztenero, 18:30ean. Arrasate Yoga Elkarteak antolatuta. Argibideak 616 96 57 95 telefono zenbakian.

### ARETXABALETA

**> Garapen pertsonala taldea.** Hilean bi bilduko dira larunbatetan, 10:00etatik 14:00etara. Informazioa eta argibideak 616 96 57 95 telefono zenbakian.

## Deiak

### BERGARA

**> Erromesaldia.** Arantzazuko Santutegira eta Loiolako Santutegira bisita uztailaren 25ean. Irteera Bergaratik 9:30ean egingo da, autobusen geltokitik. Autobusak Arantzazu baino piskat lehenago, Zelaizabalen geldituko dira eta oinez joan ahal izango da bertatik Basilikaraino. Helduak edo hala nahi dutenak autobusez joan ahal izango dira plazaraino. 11etan penitentzia komunitarioa egingo da, 12etan meza nagusia izango da Basilikan eta 14:00etan erromesen bazkaria Hospederian. Arratsaldeko 5etan Ama Birjinari agurra egingo zaio: errosarioa eta benedikta. 17:30ean autobusak irtengo dira Arantzazutik Loiolarantz, Bergaran geldialdi bat egingo da, eta arratsaldeko 8etan Loiolatik itzulera egingo da. Izena ematea Agirrebeña (San Antonio), Garitano (Zubiaurre) edo Zatoia (Barrenkale) dendetan egin daiteke. Autobus txartelak 850 pezeta balio du eta bazkarirako txartelak 2.000 pezetan daude salgai.

**> Erretratu zaharrak.** Jardun elkartea, Debagoieneko euskara elkartearekin batera, bailarako herrietako argazki zaharrak biltzen hasi da, datorren urteko egutegia prestatzeko asmoz. Hortaz, Jardunek dei egiten die herriko argazki zaharrak dituztenei Kartzela Zaharreko bulegotik pasatzeko. Debagoieneko beste euskara elkarteetara ere jo dezakete laguntzeko prest direnek.

### OÑATI

**> Oñatiko presoen eskubideen** aldeko taldeak deituta, euskal presoen eskubideen alde kale bilkura egingo da zapatuan plazan, 11:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

### DEBAGOIENA

**> Uda euskaraz 2001.** Gasteizko Bagare euskal tokiak eta Deustuko Berbaizu elkarteak udako oporrak talde antolatuan egin gura duenari talde euskaldun batekin egiteko aukera ematen diote. Aurten bi bidaia antolatuko dituzte, Txekia-Poloniara (abuztuaren 11tik 27ra) eta Bretainia-Herbereetara (uztailaren 31tik abuztuaren 13ra). Argibideak 945 26 19 56 (Jesus) edo 94 447 10 42 (Josu) telefonoetan jaso daitezke.

## Jaiak

### BERGARA

**> Basalgo auzoko jaiak.** Zapatuan, hilak 21, jaien hasiera iragartzeko kanpai jotzea eta etxafuego jaurtiketa 09:00etan. Arratsaldean, 16:00etan, plater tiraketa (lehen probak eguerdiko 12ak aldera jokatuko dira). Domekan, uztailak 22, Migel "Kostei" harri-jasotzailearen eta Angel Arrospide eta Iñaki Azurmendi aizkolarien saioa, eta 14:30ean bertso bazkaria Peña eta Zeberio bertsolariekin eta Manu Iztueta soinujoleak alaituta. Izena ematea Txuringo, Iraho eta Mekolalde tabernetan egin daiteke. Eguaztenean, hilak 25, meza nagusia 11:00etan eta 12:00etan txirrindularitza igoera Basalgora



DANTZA

### FOLKLORE JAIALDIA

Ourenseko Castro Floxo eta Bergarako Xamatz dantza taldeekin jaialdia izango da Bergaran. Ourense ei da Galizian dantzarako tradizio gehien duen probintzia eta Castro Floxoko kideek Galiziako doinu eta dantzak ekarriko dituzte: muñeirak, jotak, mazurkak eta pandeiradak. Taldea 40 dantzarik osatzen dute. Xamatzek, berriz, euskal herrialde ia guztietako dantzak eskainiko ditu.

**Noiz:** Egubakoitzean, hilak 20. **Non:** Bergarako Udal Pilotalekuan. **Ordua:** 22:30etan.



## Argazki lehiaketa

**Argazki lehiaketa deitu du Arrasateko Udalak. Zuribeltzeko zein koloretako argazkiak izan daitezke**

Lanak urriaren 11ra arte aurkeztu ahal izango dira

(alebin eta gaztetxo maila). Eguerdian, 12:30ean, pilota partiduak, 17:30ean Basalgoko X. Dantza Txapelketa eta 18:30ean idi-demak: Mutrikuko Jose Luis Pikua Elorrioko Ariantzaren aurka. Gero, erromeria Xapre eta Zaharra soinujoleek alaituta. Eguenean, hilak 26, 13:00etan meza, eta gero luncha eta umeentzako jolasak.

> **Andramari Eguna** abuztuaren 15ean Elizamendin, Angiozarren.

> **San Matei jaiak** abuztuaren 26an Ubera auzoan.

> **Osintxuko Kofraixak** abuztuaren 31tik irailaren 2ra ospatuko dira aurten.

### OÑATI

> **Madalena auzoko jaiak.** Egubakoitzean, uztailak 20, jaiak hasteko etxafuego jaurtiketa 20:30ean. Gero, 21:00etan, auzo afaria txiste kontalari eta guzti. Giroa alaitzeko Lizaso eta Mañukorta bertsolariak arituko dira. Gauean, 23:00etatik aurrera, Joxe Gardokirekin erromeria. Zapatuan, hilak 21, meza 13:00etan. Arratsaldean, 17:00etan haur jolasak, eta 23:00etan Kiñu taldearekin erromeria. Gauerdian Telleria eta Maia bertsolarien saioa izango da, eta gero erromeriak jarraituko du. Bukaeran, berakatz zopa guztiendako. Domekan, hilak 22, meza 12:30ean eta jarraian luncha. Gero, Saralegi harri-jasotzailearen erakustaldia. Arratsaldean, 16:00etan, Madalena auzoko mus txapelketa jokatuko da. Jaiak amaitzeko etxafuego jaurtiketa egingo da.

## Museoak

### DONOSTIA

> **Zientziaren Kutxaespazioa.** Miramongo parkea. Martitzenetik zapatura, 10:00etatik 18:00etara. Domeka eta jaiegunetan, 11:00etatik 18:00etara. Zientzia eta teknikaren erakusketa interaktibo iraunkorra. 943 30 82 11.

> **San Telmo museoa.** Zuloaga plaza, 1. Martitzenetik zapatura, 10:30etik 13:30era eta 16:00etatik 20:00etara. Domeka eta jaiegunetan, 10:30etik 14:00etara. Taldeentzako bisitaldi gidatuak izaten dira aurretik txanda eskatuz gero. Sarrera, doan. 943 42 49 70.

> **Aquarium.** Kai-Arriba, 34. Egunero, 10:00etatik 20:00etara. 943 44 00 99.

### HERNANI

> **Chillida-Leku.** Zabalaga baserria. Jauregi auzoa, 66. 11:00etatik 18:00etara. Domeketan, 11:00etatik 16:00etara. Martitzenetan itxita. Bisitaldi gidatuak antolatzen dituzte. 943 33 60 06.

# Zinema

**ARRASATE / ALAI ZINEMA**

***Sin vergüenza***
Egubakoitza: 19:00, 22:00.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:00, 21:30.

***Taxi 2***
Martitzena: 19:00, 22:00.
Eguaztena: 17:00, 19:30, 22:00.
Eguena, hilak 26: 19:00, 21:30.

**ARRASATE / MONTERRON**

***Acordes y desacuerdos***
Eguena, hilak 26: 22:30.

**BERGARA / NOVEDADES**

***El diario de Bridget Jones***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:15.
Eguaztena: 19:30, 22:15.
Eguena, ikuslearen eguna: 19:30.

***El emperador y sus locuras***
Domeka: 17:00.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.
Eguaztena: 17:00.

**OÑATI / SANTA ANA**

***Juerga de solteros***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**EIBAR**

**UNZAGA**

***Operación Sword Fish***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ik. eguna: 17:00, 19:30, 22:15.

**RIALTO**

***Planes de boda***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00,19:30, 22:15.
Domeka: 17:00,19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

***Taxi 2***
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena: 17:00, 19:30, 22:15.
Eguena: 19:30, 22:15.

**ELGOIBAR / FORUEN PLAZA**

***Torrente 2***
Egubakoitza: 22:30.

***Druidas***
Zapatua: 22:30.

**ELORRIO / ARRIOLA**

***El diario de Bridget Jones***
Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.

**GASTEIZ**

**GURIDI**

***Evolution***
Egubakoitza: 17:00, 22:30, 01:00.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

***Pearl Harbor***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 20:30, 00:00.
Domekatik eguenera: 17:00, 20:30.

***El diario de Bridget Jones***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

***Planes de boda***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***Ingenuas y peligrosas***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01.00.
Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

***La sucia historia de Joe Guarro***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***Operación Sword Fish***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**MIKELDI ZINEMAK**

***Ingenuas y peligrosas***
Egubakoitza: 17:15, 20:00, 22:45, 01:15.
Zapatua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:45, 01:15.
Domeka eta eguaztena: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehena, martitzena eta eguena: 17:15, 20:00, 22:30.

***Operación Sword Fish***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:45, 01:15.
Zapatua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:45, 01:15.
Domeka eta eguaztena: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehena, martitzena eta eguena: 17:30, 20:00, 22:30.

***Planes de boda***
Egubakoitza: 20:00, 22:45, 01:15.
Zapatua: 20:30, 22:45, 01:15.
Domeka eta eguaztena: 20:30, 22:30.
Astelehena, martitzena eta eguena: 20:00, 22:30.

***El diario de Bridget Jones***
Egubakoitza: 17:15, 20:00, 22:45, 01:15.
Zapatua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:45, 01:15.
Domeka eta eguaztena: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehena, martitzena eta eguena: 17:15, 20:00, 22:30.

***Pokemon 3***
Zapatua, domeka eta eguaztena: 16:30, 18:30.
Astelehena eta eguena: 17:15.

***Shrek***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:45, 01:15.
Zapatua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:45, 01:15.
Domeka eta eguaztena: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehena, martitzena eta eguena: 17:30, 20:00, 22:30.

***Los inmortales: juego final***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:45, 01:15.
Zapatua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:45, 01:15.
Domeka eta eguaztena: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehena, martitzena eta eguena: 17:30, 20:00, 22:30.

***De vuelta a la tierra***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:45, 01:15.
Zapatua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:45, 01:15.
Domeka eta eguaztena: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehena, martitzena eta eguena: 17:30, 20:00, 22:30.

***Pearl Harbor***
Zapatua: 16:15, 19:45, 23:15.
Domeka eta eguaztena: 16:15, 19:30, 23:00.
Astelehena, martitzena eta eguena: 18:30, 22:00.

***Las seductoras***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:45, 01:15.
Zapatua: 17:15, 20:00, 22:45, 01:15.
Domeka eta eguaztena: 17:15, 20:00, 22:30.
Astelehena, martitzena eta eguena: 17:30, 20:00, 22:30.

**MIKELDI ZINEMA**

***Rugrats en Paris***
Egunero: 16:30, 18:30.

***Tomb Raider***
Egunero: 20:30, 22:30.

**FLORIDA-GURIDI**

***Blow***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

***Sin vergüenza***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

***El emperador y sus locuras***
Egubakoitzatik eguenera: 12:30, 17:30.

***Más pena que gloria***
Egubakoitza eta zapatua: 20:00, 22:30, 01:00.
Domekatik eguenera: 20:00, 22:30.

***Shiner***
Egubakoitza eta zapatua: 20:00, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 20:00, 22:30.

***Pizza, birra, faso***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***Sin dejar huella***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***Tuno negro***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***El sastre de Panamá***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

**STER ZINEMAK**

***Pearl Harbor***
Egunero: 12:00, 17:00, 20:30, 00:00 (gauekoa).

***Tomb Raider***
Egunero: 20:25, 22:35, 00:45 (gauekoa).

***Tuno negro***
Egunero: 12:15, 16:15, 18:35, 20:45, 22:55, 01:00 (gauekoa).

***Evolution***
Egunero: 22:25, 00:50 (gauekoa).

***Shrek***
Egunero: 12:40, 16:35, 18:30, 20:20, 22:10, 00:10 (gauekoa).

***El emperador y sus locuras***
Egunero: 12:30, 16:20, 18:10.

***La sucia historia de Joe Guarro***
Egunero: 12:20, 16:50, 18:45, 20:50, 22:45, 00:40 (gauekoa).

***Pokemon 3***
Egunero: 12:25, 16:25, 18:20, 20:15.

***El diario de Bridget Jones***
Egunero: 20:00, 22:15, 00:25 (gauekoa).

***Rugrats en Paris***
Egunero: 12:35, 16:40, 18:40.

***Planes de boda***
Egunero: 12:10, 16:05, 18:15, 20:35, 22:50, 00:55 (gauekoa).

***Las seductoras***
Egunero: 12:05, 16:00, 18:25, 20:55, 00:15.

Goizeko emanaldiak zapatuan eta domekan.
Gauekoak egubakoitzean eta zapatuan.




**EL DIARIO DE BRIDGET JONES**
**ZUZENDARIA: SHARON MAGUIRE. AKTOREAK: RENÉE ZELLWEGER, HUGH GRANT, COLIN FIRTH.**
Helen Filding idazle britainiarraren nobela arrakastatsuan oinarritutako film umoretsua. Renée Zellweger (*Jerry Maguire*) eta Hugh Grant (*Cuatro bodas y un funeral*) aktore ezagunak ditugu Londresen girotutako film honetako protagonista nagusi. Bere inguruko guztiak amodio kontuetan zoriontsuak direla ohartuta, *Bridget Jones*ek (Renée Zellweger) senargaia topatzen hasiko da. Pertsona bitxiak ezagutuko ditu, baina *Daniel* (Hugh Grant) bere lantaldeko buruarekin hartu-eman berezia izango du.

**SIN VERGÜENZA**
**ZUZENDARIA: JOAQUIN ORISTRELL. AKTOREAK: VERONICA FORQUÉ, CANDELA PEÑA, DANIEL GIMENEZ CACHO, ROSA MARIA SARDÁ.**
Joaquin Oristrellen film honetan, interpretazio irakasle batek eta zinema zuzendari batek maitasun istorioa izan zuten aspaldi, eta berriro elkar topo egingo dute. Bata antzerkiko ikasleekin lanean dabil, eta bestea film baterako aktoreen bila. Beldurrak, desioak eta taldeko terapia nahastuko dira.

• KARPAK •
AULKI
DONOSTIA - ARRIGORRIAGA
☎943 47 34 88
Eszenatokiak
Aulkiak
Serigrafia
Basoak
Bazkariak

LASAGABASTER
ZURE KONFIANTZAKO DENDA.
Zerkaosteta 1 eta 2 • ARRASATE
943 79 27 27 • 943 79 13 55

# Hitz gezidunak

Luma



| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Nahatura trinkoa / Izena | ▼ | Arnas ezak hila / Barre xume | ▼ | Sustraia |
| | | | ► | | ▼ | | ▼ |
| | | | Zoroa / Galioa | ► | | | |
| Kala-kariak / Anaia | ▼ | Aldi / Deitura | ► ▼ | | | | |
| ► | | ▼ | | Bokala / Norbait | ► | Nitrogenoa / Iparretarrak | ► |
| Musika nota / Esanak | ► | | Igarobidea / Bokala | ► ▼ | | ▼ | |
| ► | | | ▼ | | | | Pl., etxeko abereak |
| Iridioa / Ataria | ► | | Zakur / $H_2O$ | ► | | Potasioa / Kiskalia | ► ▼ |
| ► | | | ▼ | | | ▼ | |
| Gor / Hareazko metak | ► | | | Erdi, hitz elkarketan / Suari dariona | ► | | |
| ► | | | | ▼ | Rutenioa / 50 | ► | |
| Aurrizki latinoa / Arabako herria | ► | | Hitza / Röntgen | ► | ▼ | | |
| ► | | | ▼ | | Nor atzizkia | ► | |

# Bila-bila 7







# Umore giroan

Aitor Muruamendiaraz

**ONDO BIZI**

Aspaldiko partez elkartu die bi lagun kalian, eta batak bestiari:

- Joño, Joxe, zer moduz?

- Ba, ondo esan bihar. Bizkarreko miñakin najabik azkenaldixan, baiña bestela, ondo!

- Eta familixia, zela?, zuek mordo bat ziñeten, ez?

- Bai, hamaika anai-arreba.

- Hamaika? A ze lan hire amandako. Eta bizi, hamaikak bizi zare?

- Bizi, bizi, neu bakarrik, beste danak lan egitten juek!

**NON DAGO BRASIL?**

Ikastolatik irten eta juan da mutikua etxera negar baten, eta amari esan dotsa:

- Ama, ama, maisuak jo egin nau!

- Jo egin zaittula, zergatik baiña?

- Galdetu dosta non zegoan Brasil eta nik ez dakidala erantzun dotsat.

Eta amak...

- Askotan esaten dotsut ba nik, erabilittako gauzak bere lekuan gorde bihar diela!

# Ezetz asmatu!

Estepan Plazaola



## Etxebizitza-kopurua gehien hazi den herria?

1996tik 2000ra Debagoieneko herri guztietan gehitu da etxebizitza kopurua. Asmatuko ote zenuke proportzioan zein herritan gehitu den gehien?

- Aretxabaletan
- Arrasaten
- Oñatin

**Erantzun** zuzena: Aretxabaletan, %12,25; Arrasaten, %1,9; Oñatin, %4.

## Soluzioak



| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | • | O | • | I | • |
| | | | A | R | I | T | Z |
| | | | • | E | R | O | A |
| • | B | • | G | A | R | A | I |
| N | E | B | A | • | I | • | N |
| • | R | E | • | I | B | I | A |
| E | R | R | A | N | A | K | • |
| • | I | R | • | O | R | • | K |
| A | T | A | U | R | R | E | A |
| • | S | O | R | • | E | R | T |
| D | U | N | A | K | • | R | U |
| • | A | D | • | E | L | E | A |
| E | K | O | R | A | • | A | K |

# Horoskopoa

Gipuzkoako Astrologi Elkartea

**ARIES**
*martxoak 21-apirilak 21*

Malgutasunez jokatu beharko duzu diruarekin egoeren arabera. Batzuetan aurreztaile, besteetan eskuzabal. Maitasunean, egun biziak.

**TAURUS**
*apirilak 22-maiatzak 21*

Astroen arabera, lanerako eta ahaleginerako egun onak. Normalean baino biziago igarriko duzu zeure burua. Harremanen arloan izango dituzu zailtasun handienak.

**GEMINI**
*maiatzak 22-ekainak 21*

Jarri arreta egitasmo handizaleei eta ekonomikoki hobetzeko aukerei, gutxi barru sekulako indarra hartuko dute eta.

**CANCER**
*ekainak 22-uztailak 22*

Ez dira egun lasaiak. Ez zaitez geldi geratu, energia soberan izango duzu eta. Kontuz buruko eta belarriko minekin.

**LEO**
*uztailak 23-abuztuak 22*

Normalean baino harroago ibiliko zara. Ahalegindu txutxumutxuei arretarik ez jartzen. Azaleratu zure sentimenduak mugarik gabe.

**VIRGO**
*abuztuak 23-irailak 22*

Diru kontuetan hobeto ibiliko zara besteen aholkuak kontuan hartuz gero. Baliteke, aukera zabalak eta emankorrak ekarriko dizkizun lan baten inguruko berri onak jasotzea.

**LIBRA**
*irailak 23-urriak 22*

Eman atsedena zure giltzurrunei, edan ahal duzun ur guztia eta utzi janari gogorrak eta gatza. Gertaerak ohi baino astiroago joango dira.

**SCORPIUS**
*urriak 23-azaroak 22*

Bolada ona diruaren aldetik. Etekinak jasoko dituzu zuk zeuk, edo zure bikotekide edo ingurukoengandik. Ahaztezina izango den ohiz kanpoko bolada bizitzeko aukera.

**SAGITTARIUS**
*azaroak 23-abenduak 21*

Diru sarrera eta galera ugari. Ahalegindu aurrezten. Hausnartu eta konpondu familiako arazoak.

**CAPRICORNUS**
*abenduak 22-urtarrilak 20*

Familia barruko harremanetarako, eta batez ere maitasun kontuetarako une egokia. Zuretzat oso berezia izango den eta zure zaletasun berberak dituen pertsona ezagutuko duzu

**AQUARIUS**
*urtarrilak 21-otsailak 20*

Ohi baino diru gehiago jasoko duzu agian. Beharbada, hainbeste merezi eta luzaroan itxaron duzun soldata igoerarengatik izango da.

**PISCIS**
*otsailak 21-martxoak 20*

Lagunek, ohiko gastuek eta ezusteko ospakizunen batek dirua eskuetatik kenduko dizute. Bizi-bizi ibiliko zara, eta kirolari ekiteko gogoz, igeriketari esaterako.

GIPUZKOAKO ASTROLOGI ELKARTEA



KIÑU

**Kristina Arenaza** eta **Rafa Prieto** bergararrak joan zen uztailaren 7an, San Fermin egunez, ezkondu ziren Oñatiko udaletxean. Zorionak, bikote, eta urte askotarako!



**Urko Perez Arias** aramaioarra, amama **Feliciana** eta **Miriam** eta **Asier** lehengusu-lehengusinekin. Urko uztailaren 12an jaio zen, eta 2,850 kilo pisatu zuen. Gurasoak **Idoia** eta **Migel Angel** dira; ama aramaioarra eta aita, berriz, bergararra.



**Peio Lazkano Baseta** eta **Segundo** aita, elorrioarrak biak. Peio uztailaren 8an jaio zen, eta 4,180 kilo pisatu zuen. **Luisa** da ama, atxondoarra.

## ESKER ONA

### Gabriela Ayastuy Lizarralde

*Pedro Garmendiaren alarguna*



**Bergaran** hil zen
2001eko uztailaren 16an,
90 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.*

## JAIOTAKOAK

**Paula Cueva Zubiria**
Oñatin, uztailaren 10ean.

**Irati Igartua Arabaolaza**
Oñatin, uztailaren 12an.

**Urko Perez Arias**
Aramaion, uztailaren 12an.

**Kepa Juaristi Uriarte**
Arrasaten, uztailaren 16an.

## EZKONDUAK

**Josu Uribesalgo Altuna** eta **Laura Urkiola Añorga,** uztailaren 7an, Bergaran.

**Jon Ugarte Beitia** eta **Libe Olabarrieta Lizaso,** uztailaren 13an, Aramaion.

**Francisco Alberto Gea Torralba** eta **Maria Elena Reifs Hernando,** uztailaren 14an, Bergaran.

**Ricardo Briñas Maiztegi** eta **Yolanda Madinabeitia De la Maza,** uztailaren 14an, Arrasaten.

**Ricardo Calleja Langaran** eta **Maria Teresa Martinez Sotos,** uztailaren 14an, Arrasaten.

## HILDAKOAK

**Emilio Antonio Ubeda Azkona**
Eskoriatzan, uztailaren 8an, 29 urte zituela.

**Isidoro Arrese Alberdi**
Eskoriatzan, uztailaren 11n, 61 urte zituela.

**Karmelo Gallastegi Unamuno**
Bergaran, uztailaren 13an, 66 urte zituela.

**Salvador Gonzalez Rodriguez**
Bergaran, uztailaren 13an, 81 urte zituela.

**Andres Iraolabeitia Idueta**
Bergaran, uztailaren 14an, 77 urte zituela.

**Julia Bilbao Llona**
Arrasaten, uztailaren 15ean, 83 urte zituela.

**Felix Amozarrain Uribeetxebarria**
Arrasaten, uztailaren 16an, 90 urte zituela.

**Lorenzo Gil Rojas**
Oñatin, uztailaren 16an, 75 urte zituela.

**Gabriela Aiastui Lizarralde**
Bergaran, uztailaren 16an, 90 urte zituela.

**Miguel Estanga Leiza**
Oñatin, uztailaren 17an, 80 urte zituela.

**Victor Alonso Lozano**
Bergaran, uztailaren 17an, 83 urte zituela.

**Matilde Martinez Lopez**
Arrasaten, uztailaren 18an, 79 urte zituela.

**ARRASATEKO UDALA**

**LANERAKO PRESTAKUNTZA IKASTAROA**

## EMAKUMEEI ZUZENDUTAKO SOLDADURA IKASTAROA - 2001

Arrasateko Udalaren Enplegu Zerbitzua lanerako prestakuntzako ekintzen artean, emakumeei zuzendutako soldadura ikastaro bat antolatzen ari da, ezaugarri hauekin:

**IKASTAROAREN HELBURUA**
Soldadurako hainbat tekniketan emakume talde bat trebatzea, metalgintza arloan lanpostu bat lortzeko helburuarekin.

**NORENTZAT**
Emakume langabetuei zuzenduta dago.

**IKASLE KOPURUA**
Taldea gehienez 15 ikaslez osatuko litzateke.

**TOKIA**
Arrasate-Aretxabaleta Institutua. Markole auzoa, Aretxabaleta.

**ORDU KOPURUA**
400 orduko ikastaroa.

**ORDUTEGIA**
Astelehenetik ostiralera, 14etatik 18etara.

**NOIZ**
2001eko irailaren 24tik 2002ko otsailaren 28 arte.

**IZENA EMATEKO EPEA**
2001eko uztailaren 30 arte, Arrasateko Udalaren Enplegu Zerbitzuan. Telefonoa: 943 79 09 00.

ARRASATEKO UDALA

Enplegu Zerbitzua

**ARRASATEKO UDALA**

**LANERAKO PRESTAKUNTZA IKASTAROA**

## EMAKUMEEI ZUZENDUTAKO MEKANIZATUEN IKASTAROA - 2001

Arrasateko Udalaren Enplegu Zerbitzua lanerako prestakuntzako ekintzen artean, emakumeei zuzendutako mekanizatuen ikastaro bat antolatzen ari da, ezaugarri hauekin:

**IKASTAROAREN HELBURUA**
Mekanizatuen hainbat tekniketan emakume talde bat trebatzea, metalgintza arloan lanpostu bat lortzeko helburuarekin.

**NORENTZAT**
Emakume langabetuei zuzenduta dago.

**IKASLE KOPURUA**
Taldea gehienez 15 ikaslez osatuko litzateke.

**TOKIA**
Arrasate-Aretxabaleta Institutua. Markole auzoa, Aretxabaleta.

**ORDU KOPURUA**
500 orduko ikastaroa.

**ORDUTEGIA**
Astelehenetik ostiralera, 14etatik 18etara.

**NOIZ**
2001eko irailaren 17tik 2002ko martxoaren 22arte.

**IZENA EMATEKO EPEA**
2001eko uztailaren 30arte, Arrasateko Udalaren Enplegu Zerbitzuan. Telefonoa: 943 79 09 00.

ARRASATEKO UDALA

Enplegu Zerbitzua

# JATETXE GIDA

## On egin!





## Aldape jatetxea

Iturriotz, 41 / ARRASATE
943 79 70 41

Eskaintza
- Eguneko menua
- Karta

Berezitasunak
- Porruak arrautza-irinetan pasatuta.
- Orein solomoa aran saltsan.
- Arraina plantxan.

Igandeetan itxita



## Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABALETA
943 79 24 58

Eskaintza
- Menua eta karta
- Ezkontzak
- Jangela: 150 lagunendako
- Jaunartze eta bataioak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

Egunero zabalik

Zure ezkontza ospatzeko lekurik aproposena



## Ibarra jatetxea

Araba etorbidea, 29 / ARETXABALETA
943 79 69 86

Eskaintza
- Menua
- Karta larunbatetan
- Plater konbinatuak
- Gazte taldeentzat prezio bereziak

Berezitasunak
- Kokotea
- Lupina
- Txuletoia
- Almejak

Enkargurik ezean domekak itxita.



## Larrinetxe jatetxea

Udala auzoa / ARRASATE
943 79 22 15

Eskaintza
- Enkarguz menu bereziak
- Plater konbinatuak eta ogitartekoak egun osoan.

Berezitasunak
- Legatza onddo eta txipiroiez beteta
- Pasta entsalada.
- Bildotsa erreta
- Bakailaua gainerreta
- Etxeko postreak

- Martitzenetan itxita

Abuztuan zabalik!



## Leku berri jatetxea

Irimo barrena / ANTZUOLA
943 76 60 94

Eskeintza
- Menua eta Karta
- Bataioak eta jaunartzeak
- Kintadak

Berezitasunak
- Bakailaua, kokotxa eta almejekin
- Bildotsa erreta
- Txuletak
- Etxeko postreak

- Astelehen arratsaldetan itxita



## Mitarte Garai

NEKAZAL TURISMOA

(Urkuluko urtegitik gertu)
Areantza auzoa / ARETXABALETA
943 79 17 51

Eskaintza
- Menua
- Karta
- Enkarguak

Berezitasunak
- Bildotsa
- Etxeko gazta, txorizoa eta ogia

Astelehenetan itxita



## Zotz jatetxea

Zubillaga auzoa, 1 / OÑATI
943 78 35 45

Eskaintza
- Eguneroko menua
- Ogitartekoak
- Hamarretakoak

Berezitasunak
- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

Igandetan itxita



## Zuhaizti jatetxea

Espoloia, 6 / BERGARA
943 76 59 22

Eskaintza
- Pizzak
- Plater konbinatuak

Berezitasunak
- Etxeko postreak

Zatoz gure terrazara!

**Goienkaria** ©
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

**Argitaratzailea:** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea, z/g • 20500 Arrasate
**Egoitza nagusia:** **BERGARA** 20570 Barrenkalea, 33 • 132 postakutxatila • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
**Ordezkaritzak:** **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna, 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: arrasatepress@euskalnet.net
**Aretxabaleta** 20550 Durana, 11 • 151 postakutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: aretxagazeta@euskalnet.net
**Publizitatea:** **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea, z/g • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: publi@goiena.com.
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

EGUBAKOITZA, 2001eko uztailaren 20a


*Atzeskua*

MAIDER OSA

# Aitor Elkoro/Pilotaria

**Profesionaletan hasi ondoren, bigarren mailara jaitsi zinen eta berriz ere profesionaletara igo.**

Lehendabizi 19 urterekin debutatu nuen profesionaletan, baina ez nuen suerte handirik izan. Eskuetatik oso gaizki ibili nintzen. Irailean soldadutzara joan nintzen Galiziara, eta bertan behera laga nuen pilota. Handik bueltatzean urtebete egon nintzen pilota ikutu gabe, froga txiki bat egin bainuen eta eskuek ez baitzidaten erantzun. Gero, lanean hasi ondoren, afizionatuetan hasi nintzen udako torneoetan-eta, eta poliki-poliki igoaz joan nintzen. 92an, Asegarce enpresarekin debutatu nuen profesionaletan.

**Pilotariok neskazale eta parrandazale fama duzue.**

Zer? Hori Mikel Goñirengatik izango da, ezta? Nik uste dut lehenago pilota ezberdin hartzen zela. Orain beste edozein kirol profesionalen pareko dago.

**Azken aldian ez dugu pilotalekuetan betiko Aitor ikusi.**

Azken urtea nahiko txarra izan dut. Partidu asko galdu ditut, eta konfiantza gabe aritu naiz. Eskuko arazo batek lan handia eman dit, baina badirudi zulo beltz horretatik irten dudala azkenean. San Ferminetan egindako torneoaren ondoren, ea joko hori mantentzen dudan.

**Eman dizkiozu eskerrak San Fermini?**

Je, je...

**Binaka jokatzeko, zein da bikote ideala?**

Momentu bakoitzean gorputzaldi onena duena. Dena dela, atzelarioi aurrelari errematatzaileak gustatzen zaizkigu. Baina ni aurrelari denekin aritzen naiz gustura, denekin jokatu behar da-eta.

**Buruz buru partidu bat irabaztean, garaipenean zenbateko partea du botileroak?**

Handia. Denok dakigu buruz buru zer egin behar den: errebotera jo eta ahal denean tantoa bukatu. Baina, botileroa garrantzitsua da lasaitasuna ematen duelako eta aholku teknikoak esaten dituelako.

**Tailerrean ere lan egiten duzula kontuan hartuta, nola prestatzen dituzu entrenamendu saioak?**

Goizetan lanera joaten naiz lau orduz. Arratsaldetan, berriz, gimnasiora edo pilotalekura. Jeneralean txapelketa ofizialak prestatzen dira. Iraila bukaera aldera, berriz, lau t'erdiko txapelketa prestatzen hasiko naiz.

**Eskutik sindikatuaren sorrera beharrezkoa zen?**

Lehen mailako pilotariak askoz hobeto egoteko lanean diharduen sindikatua bada, alferrik gabiltza. Bigarren mailako pilotariak lagundu behar dira, horiek direlako enpresetan kaltetuenak.



**"Ni aurrelari denekin aritzen naiz gustura, denekin jokatu behar da-eta"**

**"Eskuko arazo batek lan handia eman dit, baina badirudi zulo beltz horretatik irten dudala azkenean"**

**"Bigarren mailako pilotariak lagundu behar dira, horiek direlako enpresetan kaltetuenak"**

► *Elgetarra / 33 urte / Pilotaria*

## AIPAGARRI



**LEOPOLDO MEDINA**
**Eskoriatza / Udaltzaina**

Eskoriatzako udaltzain bakarra hil honen amaieran, 31n, erretiratuko da. 30 urtean izan da Eskoriatzako udaltzaina, hasierako urteetan Toribio Zubiarekin batera. Orain, erretiratzeko ordua heldu zaio eta Eskoriatzako Udala ordezkoa topatzeko azterketak egiten ari da.



**MIREN AZKARATE**
**Donostia / Euskaltzaina**

Jaurlaritza berrian bi sailburu izango dira Debagoienarekin harreman zuzena dutenak. Batetik, Miren Azkarate Kultura sailburua, aita eta ama bergararrak dituena eta Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuarekin lankidetzan jardun duena hainbatetan. Bestetik, Joseba Azkarraga Etxebizitza eta Ingurumen sailburua, Euskadiko Kutxako ordezkaria erakunde publikoekin harremanetarako.


PASCUAL UNItec
TELEKOMUNIKAZIOAK
Arrasate,4. 20005 Donostia Tel. 943 42 04 28 eta Madril hiribidea 13.
Aurrerantzean baita Bergaran ere
INAUGURAZIOA
hilaren 20an, egubakoitza
Ibargarai, 5.
Tel. 943 77 70 14 - 15 - 16

Zure aholkularia Telekomunikazioetan
Banatzaile ofiziala
Telefonica MoviStar
Zatoz, aldatu zure puntuak eta eraman ezazu momentuan bertan sakeleko telefono berria.